

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GENEROAK LURRALDE-
PLANGINTZAN ETA
HIRIGINTZAN DUEN
ERAGINAREN EBALUAZIOA



2022

Izenburua: «Generoak lurralde-plangintzan eta hirigintzan duen eraginaren ebaluazioa»

Argitaratzailea: EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier kalea 36. 01005-Vitoria-Gasteiz

Egilea: Red2Red

Data: 2022ko ekainean eguneratua

AURKIBIDEA

1. TESTUINGURUA	4
2. GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK	8
2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN	8
2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK	15
2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA	21
2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA	24
2.5. BERDINTASUN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK	30
3. LEGEDIA.....	33
4. DATU-ITURRIAK	34
5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK.....	35

1. TESTUINGURUA

Hiritarren eguneroko bizitzako arlo ezberdinetan emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzen duen politika bat garatzeko, gure hirien diseinuari eta egiturari erreparatu behar diegu. Horregatik, herritar guztiak integra daitezten lortzeko, ezinbestekoa da genero-ikuspegia hirigintzan aplikatzea, haien premia eta itxaropen anitzak kontuan izanik, betiere; hala, aukera berberak izango dituzte hiriak eskain diezazkiekeen ondasunak eta zerbitzuak erabiltzeko orduan. Jarraian, genero-ikuspegia zeharka sartzeko aintzat hartu behar diren alderdi nagusiak zehazten dira.

Genero-rolen, laneko sexu-bereizketaren eta emakumeak ordaindu gabeko lanean nagusi izatearen eragina eta horren ondorioz emakumeek eta gizonek hiria ezberdin erabiltzea. Urteak pasa ahala, hirigintzak, jardunbide jakin batzuen bidez, esate baterako, zonifikazio bidez eta, geroago, hirietako erdiguneen gentrifikazio edo turistifikazio bidez, produkzio-jarduerekin lotutako funtzioak sustatu ditu, jarduera erreproduktiboen kaltetan. Hori dela eta, denboraren poderioz, azken horiek eta zaintza-lanetan denbora gehien igarotzen duten pertsonak ikusezin bihurtu dira. Horrekin batera, lantokiaren eta etxearen, bizitza publikoaren eta bizitza pribatuaren arteko bereizketan oinarritzen diren hiri-eredu eta -estrategiak sortu dira.

Hirigintza modernoak sexuaren araberako lan-banaketa horretan oinarritu du luzaroan hirien diseinua eta plangintza, eta, ondorioz, hiri-eremua produkzio-eredu maskulinizatuaren inguruan espezializatu da. Bien bitartean, emakumeek oztopo handi bati egin behar diete aurre lan erreproduktiboak eta beren eguneroko zeregin ugariak gauzatu ahal izateko: batik bat gizonentzat pentsatutako espazioetan bizi den subjektu unibertsal batentzat eraikitako hirietan bizitzea.

Espazioan esku-hartzea sexuaz haragoko dibertsitatearen ikuspegitik planifikatu behar da, eta aintzat hartu behar da interseksionalitatea; hau da, pertsonen espazioa erabiltzeko eta espazioaz gozatzeko moduan era ezberdinetan eragiten duten beste ezaugarri batzuk hartu behar dira kontuan: adina, etnia, desgaitasuna, etab. Emakumeen beharrak genero interseksionalaren ikuspegitik planteatu behar dira, egunerokotasunean eskuragarriagoak eta seguruagoak izango zaizkien lurraldeak eraikitzeko. Ildo horretan, pertsonen, emakume zein gizon, behar eta itxaropen ezberdinak aldarrikatzen dituzte lurraldea eta hiriko espazioak erabiltzeari dagokionez, eguneroko bizitzan beren gain hartzen dituzten genero-rol desberdinetan sorburu dutenak; izan ere, bere horretan jarraitzen du laneko sexu-bereizketak eta, hori dela eta, emakumeen esku geratzen dira batik bat ordaindu gabeko zaintza-lanak.

Emakumeak lan-merkatuan txertatuz joan dira, baina gizonen txertaketa paraleloa ez da esanguratsua izan etxeko lanei eta zaintza-lanei dagokienez. Horrenbestez, lan-zama bikoitza dute emakumeek, ordaindutakoa eta ordaindu gabekoa, alegia. Zama bikoitz horrek eragin nabaria du emakumeen antolaketa-beharretan eta itxaropenetan, besteak beste, eremu publikoari, garraioari, ekipamenduei (lurraldekoak zein hirikoak), merkataritzari eta etxebizitzari dagokienez.

Hiri-plangintzak eta lurralde-antolamenduak pertsonen bizi-zikloetan jatorria duten premiak ere izan behar dituzte kontuan, baita haien bilakaera ere, gizonak eta emakumeak bere egiten dituzten genero-rolen arabera. Genero-ikuspegia barne hartzen duen hiri-inguruneak gai izan behar du bizitzako alderdi desberdinak orekatzeko, batez ere bizitza pribatua eta eremu publikoa.

Gizonek eta emakumeek eremu publikoko eta garraioko segurtasunari dagokionez duten pertzepzio desberdina, eta horrek eragiten duen inpaktu negatiboa emakumeek hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabiltzeko orduan.

Genero-ikuspegia hiriaren kudeaketan eta eraikuntzan txertatzeak denboraren eta espazioaren dimentsio hobek erdiesteak ere badakar; ondorioz, besteak beste, ekipamenduak hobeto banatuko dira, garraio-sareak efizienteagoak eta seguruagoak izango dira, etxebizitza eskuratzeko aukera gehiago egongo dira eta, batez ere, emakume askok auzoetan bizimodua ateratzeko mugatzat jotzen duten segurtasunik eza murriztuko da.

Hiria bertan bizi diren pertsonen artean sortzen diren harreman sozialen kantitatean eta kalitatean oinarritzen da, bereziki auzo-ekialdean, harreman horiek nabarmen areagotzen baitira auzoetan. Norbere auzoetan seguru sentitzearen sententzia funtsezko elementua da hiri-espazioarekin eta bertako jendearekin harreman positiboa eraikitzeko.

Segurtasun-pertzepzioan aldeak daude. Izan ere, pertsonak beren sexu, adin, jatorri eta abarren arabera indarkeria mota jakin bat jasan dezaketela sumatzen dute, eta, beraz, beldurrak eta segurtasun-pertzepzioak oso erreferente eta esanahi desberdinak dituzte gizonen edo emakumeen kasuan. Azterlan askok frogatzen duten moduan, emakumeek beren mugikortasuna eta hiriko espazioaren erabilera mugatzen dute segurtasunik sentitzen ez dutelako, eraso sexualak eta emakumeen kontrako beste indarkeria mota batzuk izateko arriskua dela eta. Hala, ezkutuko segurtasun-gabezia hori oztopo bilakatzen da pertsonaren erabateko garapenerako bai eta hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabiltzeko eskubiderako ere.

Hirigintzaren gaia jorratzean, ezinbestekoa da segurtasun-gabeziaren pertzepzioaren azterketa txertatzea, ikusteko beldurrak nabarmen mugatzen dituela emakumeen askatasuna eta mugikortasuna, batez ere gaueko jardueretan, eta hiri-espazioaren erabilera baldintzatzen duela, eta, horren ondorioz, kide izatearen sentimendua ahuldu egiten dela, eta, horrenbestez, emakumeek inplikazio eta parte-hartze txikiagoa izaten dutela hiriaren kudeaketarekin lotutako prozesuetan. Hiriaren plangintzan eta diseinuan segurtasunaren gaia lantzean, pertsona guztientzako askatasun-espazio bat lortu nahi bada, emakumeak eurak eta hiri-espazioaren erabileran dituzten esperientziak dira txertatu beharreko aktibo nagusiak.

Emakumeen eta gizonen arteko desparekotasun ekonomikoak hirietan bizitza osoa izatea ahalbidetzen duten baliabideak eskuratzeko aukera ezberdinen zantzu dira. Hala bada, ordaindutako enplegu-tasa txikiagoak, soldata-arrakalak eta laneko sexu-banaketari lotutako beste faktore batzuek, besteak beste, desabantaila ekonomikoak dakartzkie emakumeei; desabantaila horien ondorioz, gainera, hirian oinarritzeko diren baliabideak izateko aukera okerragoak dituzte

emakumeek, hala nola etxebizitza, ibilgailu pribatua eta aisia-baliabideak eskuratzeari dagokionez, eta horrek sakondu egiten du despaketotasun-egoera hori. Egoera horiek kontuan hartu behar ditu hiri-plangintzak, despaketotasun-posizio horren ondorioak arintzearen.

Hirien eraikuntzari lotutako lanbideetan eta erakundeetan emakume gutxi egotea.

Askotariko arrazoiak direla medio, emakume gutxiagok betetzen dituzte erantzukizun politikoa duten zuzendaritza-karguak arlo horietan. Horren arrazoiak dira, besteak beste, sektoreari lotutako hezkuntza-adarretara sartzan diren emakume kopuru txikiagoa, emakume askok lan-merkatu horretan txertatzeko dituzten zailtasunak eta lurralde- zein hiri-plangintzaren alorreko lanbide asko gizonei esleitzen dizkieten estereotipoak.

Esparru horretan emakumerik ez egoteak zerikusia izan dezake jatorriz «zaintzaren hirigintza» ez egotearekin. Aipatu ereduak, zaintzez arduratzen diren pertsonak egunero egin behar dituzten zeregin-kateek izan beharko lukete, hain zuzen ere, lurralde- eta hiri-plangintzan genero-ikuspegia txertatzeko ardatza. Hirigintza berri horren bidez soilik lortuko da bere espazio publikoa zaindu eta administratuko duen hiri bat eratzea, espazio hori erabiltzen duten eta bertan bizi diren pertsona guztien eguneroko bizitza arreta bereziz zainduko duena, zainketak hiria bera sostengatzen duen produkzio-sistemaren funtsezko ardatz gisa hartuta.

Labur esanda, hiri-plangintzako aukera-berdintasunak zenbait ekimen izan behar ditu berekin, gai direnak hiri inklusiboak sortzeko, hiriek bereizgarri duten benetako dibertsitatea kontuan hartuta betiere, denok izan dezagun hiriaz gozatzeko eskubidea.

Hala ere, eta arloan adituak direnek adierazi duten legez (I. Sánchez de Madariaga), hiri-politiken esparrua izan da, duela urte batzuetara arte, **genero-ikuspegia txertatzeko aukera gutxien ematen duen politika publikoen esparruetako bat**; esperientzia gehienak, izan ere, proiektu pilotuei edo neurri espezifikoiei dagozkie, ez ordea, genero-ikuspegia zeharka sartuta, eraldaketa integrala xede duen egiturazko erantzun bati.

Egoera horren aurrean, **garapen jasangarrirako nazioarteko agenda** erreferentzia-esparru berria da norabide horretan aurrera egiten jarraitzeko: batetik, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren eraginez, planetaren jasangarritasunerako esparru berria hartu zen 2015eko irailean, Garapen Jasangarriaren Helburuen (GJH) bitartez. 5. helburua genero-berdintasunari buruzkoa da, hain zuzen ere; 11. helburua, berriz, hirigintzaren gainekoa (hots, «hiriak seguruak, inklusiboak, erresilienteak eta jasangarriak izan daitezen lortzea»). Helburuok elkar elikatzen dute. Bestetik, 2016ko urrian onetsitako Hiri Agenda Berriaren (Habitat III) asmoa da datozen bi hamarkadetan hiri-plangintza eta -garapenerako gida izatea; bertan, ekonomia, gizarte eta giza garapen jasangarriaren eragiletzat hartzen da hiri-garapena, non pertsonak baitira politiken muina.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiri-eremuan genero-ikuspegia txertatzearen gaiari xehetasunez heldu zaio, alde batetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak eta lege hori aldatu zuen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak xedatutakoan, eta bestetik, genero-berdintasunean aurrera egiteko

zenbait ekintza zehatzetan, hala nola 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan, izan ere, gai hori gidalerro horien zeharkako ardatz gisa hartu da, Euskal Autonomia Erkidegoko udal- eta udalez gaindiko antolamendua egiteko. Era berean, genero-ikuspegia zeharka eta berriaz txertatu da Bultzatu 2050 - Euskadiko Hiri Agendaren estrategian, hiri-garapenaren eremuan genero-berdintasun eraginkorrerako politika berriak bultzatzeko. Beraz, Eusko Jaurlaritzak, Bultzatu 2050 - Euskadiko Hiri Agendaren¹ esparruan, hiria genero-ikuspegiarekin berroneratzeko proposatutako estrategia berriak berekin dakar kalteberatasun-egoerak gainditzera bideratutako ibilbide-orri berri bat abian jartzea, tokiko eta auzoetako prozesuetan pilatutako esperientzian eta jakintzan oinarrituta. Horrela, tokiko erakundeei eta eragileei gaitasun, esperientzia eta ezagutza nahikoak emango zaizkie etorkizunean beren auzoetan genero-ikuspegiko hiri-estrategiak garatzen jarrai dezaten.

Agenda horiek abiapuntu sendoa dira hirigintzan genero-berdintasunaren politiketan jauzi kualitatiboa emateko, eta gobernu nazional guztiek babesten dituzte. Oinarri horietatik «hirigintzan berdintasun-politiken belaunaldi berria» gara daiteke (Sánchez de Madariaga, 2017); aipatu politikei esker, beroriek hobeto ezagutu ez ezik, posible da jardun-politiketan egiturazko aldaketak sortzen dituzten eta proiektu pilotuetan beharrezkoa den esperientziaz haraindi joatea ahalbidetzen duten lege-aldakuntzak dakartzan erakunde-gaitasuna eraikitzea ere, alderdi guztietan interseksionalitatea txertatuko duena.

¹ Genero-ikuspegidun hiri-berroneratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Agendaren esparruan.Bultzatu 2050

2. GENERO ERAGINA EBALUATZEKO AZTERTU BEHARREKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

2.1. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PRESENTZIA SEKTOREAN

Hiru euskal lurraldeen, eta batez ere EAEko hiri-eremu handien feminizazio arinak (% 52,92 dira Bilbon, % 52,94 Donostian eta % 51,53 Gasteizen) aditzera ematen du genero-ikuspegia txertatu behar zaiela hiri horien antolamendu- eta diseinu-politikei.

Hiri handietan ez ezik, landa-eremuan ere ikus daitezke jarraian aipatzen diren genero-desparekotasunak. Euskal Autonomia Erkidegoaren Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan adierazten den legez, landa-eremuan, genero-desparekotasunak nabarmenagoak dira garraioa, zerbitzuak, ekipamendu eta lantokiak eskuratzeko unean; eta ekipamendu eta zerbitzuak erabiltzeko beharretan eragiten dute, bereziki zaintzaren arloan, zerbitzuen eta ekipamenduen sarearen kapilaritateari dagokionez.

Emakumeek hiri-eremua ezberdin erabiltzeak zenbait gogoeta dakartza berekin, bertan dituzten beharrei buruz. Hala, eguneroko zaintzen arduradun nagusi diren aldetik, askotarikoak dira emakumeek normalean egiten dituzten zereginak; hori dela eta, garrantzi handiko bi alderdi aztertu behar dira haien premiak asebetetzeko: batetik, mugikortasuna, eta, bestetik, segurtasuna.

Mugikortasunaren plangintza kudeatzean, maskulinitate-eredu bat baliatu da, lan-arrazoiengatikoa joan-etorri linealetan eta, bereziki, ibilgailu motordun pribatuan oinarritua. Mugikortasun-sistema horiek ez dira gai izan emakumeen mugikortasun poligonal eta interdependentea –eta mugikortasun horri lotutako konplexutasuna– aztertzeko eta erantzun bat emateko. EAEko Mugikortasun Inkestaren arabera², emakumeek lanegunetan egiten dituzten **joan-etorri** nagusiak hiri barruan egiten dituzte (% 71,8), eta joan-etorri gehienak oinez egiten dituzte (% 52,0; gizonen kasuan % 42,1 da ehunekoa). Datu horiek agerian uzten dute EAEko hiriguneetako egungo mugikortasun-azpiegitura birplanteatzearen garrantzia, emakumeek eremu horietan egiten baitituzte joan-etorri gehienak.

Datuen arabera, emakumeek gizonek baino gehiago erabiltzen dute garraio publikoa; zenbakiak aldatu egiten dira aztertutako udalerraren edo hiri-eremuaren arabera. Hala, Bilboko³ metropoli-eremuan, emakumeen % 66k batez ere garraio publikoa erabiltzen dute eguneroko joan-etorriak egiteko, batik bat emakume gazteenek (18-25 urte) eta 45 urtetik gorakoek; metroa da garraiobide gogokoena emakumeen % 61entzat. Tamaina txikiagoko beste udalerririk batzuetan, autobusa da, hirikoa zein hiriartekoa, emakumeek eguneroko joan-etorrietarako gogokoan duten garraiobidea. Gipuzkoan, Dbus⁴ hiri-zerbitzuaren eta Lurraldebus⁵ hiriarteko zerbitzuaren erabiltzaileen % 70 inguru dira emakumeak.

² EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta (2016)

³ Bilbo metropolitarrako hirigintzan genero-ikuspegia integratzea

⁴ Erabiltzailearen profilaren azterketa 2017

⁵ Lurraldebusen 2020. urteko Txostena

Azken urteotan, EAEko hirietan alternatiba berriak agertzen ari dira hiriko joan-etorriak egiteko. Haien bidez, ingurune jasangarriagoak sustatu nahi dira, ibilgailu pribatua gutxiago erabilia. Mugikortasun berri horrek, mugikortasun pertsonaleko ibilgailuen bidezkoak (MPI) edo mugikortasun partekatuko ibilgailuen bidezkoak, ez dirudi oraindik erabilera-kuota nahikoa duenik emakumeen artean, ez behintzat haien eguneroko joan-etorriak errazteko adinakoa. Esate baterako, Gasteizen, etxeen % 1,3an baino ez dute patinete elektriko edo segway bat, ⁶eta gizonaek erabiltzen dute gehien; gauza bera gertatzen da Bizkaian; izan ere, baliabide hori erabiltzen dutenen artean, % 30 baino ez dira emakumeak⁷.

Emakumeak gehiago mugitzen dira oinez hirian. Mugikortasunak, bestalde, lotura hertsia du azpiegiturekin eta garraio publikoko ibilgailuekin. Ondorioztatu daiteke, beraz, garraio ezberdinen erabilgarritasunarekiko ez ezik, jarduerak egiten dituzten tokien gertutasunarekiko ere sentikorrak direla. Zenbat eta handiagoak distantziak, orduan eta handiagoak emakumeen mugak beren eguneroko jarduerak egiteko, doazen tokietara heltzeko denborekin eta/edo bitartekoen bateraezintasuna dela eta.

Emakumeek etxeko lanetan eta mendeko pertsonak zaintzen ematen duten denbora luzeagoa agerikoa da, halaber, egiten dituzten joan-etorrien banaketan. Ikasketei eta kudeaketa pertsonalei eta/edo medikuei dagokienez, antzekoak dira joan-etorriak egiteko arrazoiak emakumeen eta gizonen artean; hala ere, hiru kasutan bada arrakala adierazgarri bat bi sexuen artean: emakumeen joan-etorri guztien % 26,0 arrazoi profesionalengatik dira, gizonen % 34,6ren aldean; emakumeen joan-etorrien % 11,1 mendeko pertsonen laguntzeko da, gizonen kasuan, berriz, arrazoi horregatik joan-etorriak % 6,4 dira. Azkenik, etxeko erosketek emakumeen joan-etorrien % 11,6 eragiten dituzte, gizonen % 5,5en aldean. Emakumeek eta gizona denbora baliatzeko duten modu desberdinari buruzko azterketa horrez gain, emakumeek jarduera horiek garatzen dituzten hiri barruko espazioari buruzko azterketa nabarmendu behar da. Bilboko metropoli-eremuan, eguneroko zereginak, hala nola elikagaien erosketak, medikuarenera joatea, administrazio-kudeaketak eta bizitza sozialarekin lotutako jarduerak, norberaren etxebizitzaren inguruan egiten dira batik bat; beste jarduera batzuk, berriz, hala nola kirol-ekipamenduetara joatea edo prestakuntzarekin lotutako jarduerak, lantokietatik eta/edo ikastegietatik hurbilago dauden hiriko puntuetan egin ohi dira.

Hiri-mugikortasunaren plangintza egiteko, lan-arrazoiengatik mugikortasunaz gain, kontuan hartu behar dira pertsonen beren eguneroko bizitzan egiten dituzten jardueren konplexutasuna eta aniztasuna. Horregatik, emakume askoren zaintzaile-rolarekin eta eguneroko zeregin ugariarekin eta emakume horiek eguneroko ordutegiak lotzeko egin behar dituzten ahaleginekin bateragarriak diren hiri-mugikortasuneko politikak diseinatu behar dira, eta politika horiek bazter utzi behar dute banakako erabaki batean oinarritutako eta aldebakarreko joan-etorrietan soilik eraikitako mugikortasunaren paradigma. Lan-bizitza eta etxeko lanak uztartzeko, ezinbestekoa da garraio-azpiegiturak efizienteak izan daitezen, denborei eta ibilbideak zein aldaketak planifikatzeari dagokienez; horrez gain,

⁶ Vitoria-Gasteizko mugikortasunari buruzko inkesta, 2019

⁷ Generoaren araberako eraginaren aurrefiazko ebaluazio-iruzkina GEAE

irigarria eta eroso izan behar du garraioak, eta erraztu beharko lituzke emakumeek adingabeekin edo kargurako beste pertsona batzuekin, bai eta zama, erosketa, haur-kotxe eta abarrekin ere, egiten dituzten joan-etorriak. Premisa horiek aintzat hartzen ez badira, emakumeak beren ibilgailuarekin baino ezin izango dira mugitu; askotan, alabaina, ez dute halakorik, gaitasun ekonomiko txikia dutelako edo gizonak erabiltzen duelako eskuarki (auto bakarra duten familien kasuan).

Emakumeek joan-etorriak egiteko duten askatasuna ez dago soilik garraio-azpiegitura onak diseinatzearen mende; izan ere, emakumeek beren inguruneaz duten **segurtasun-pertzepzioa** funtsezko beste faktore bat da beren garapen pertsonalerako eta autonomiarako, pertzepzio horrek asko baldintzatzen baitu emakumeek eremu publikoan eta partaidetza-prozesuetan duten presentzia, bai eta emakumeek hiriek eskaintzen dituzten zerbitzuak berdintasunez erabiltzeko eta aisialdiaz gozatzeko duten aukera ere.

Emakumeei eta gizonei arlo pribatuan eta publikoan betidanik esleitu izan zaizkien eginkizunetan oinarritutako eremuak eraiki direnez, eremuak sexuaren arabera esleitzen dira. Hortaz, gizonak abiaburu hartuta eraiki dira hiriak; izan ere, betikotuz joan da eredu hori, emakumeek eta gizonek arriskua desberdin ulertzen dutela kontuan izan gabe. Hiri-eredu berdinzale eta inklusiboak bide eman behar dio emakumeen rol aktiboari, hiria feminizatzeko eta, hartara, hiritar guztientzat segurua izan dadin.

Eusko Jaurlaritzak egindako «Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna» azterlanaren⁸ arabera, emakumeen % 11,9k uste zuten bizi ziren ingurua segurtasun gutxikoa zela; uste hori bera gizonen % 8,5ek zuten. Bestalde, emakumeen % 18,1ek uste zuten bizi ziren ingurunea oso segurua zela; uste hori bera gizonen % 31,4k zuten. Aldea are nabarmenagoa da bizi diren ingurunean gabez bakarrik ibiltzeko duten segurtasun-pertzepzioa alderatzen denean. Kasu horretan, emakumeen % 22,9k segurtasun gutxi sentitzen dute, gizonen % 10,8ren aldean. Bestalde, emakumeen % 8,5ek ez dute batere segurtasunik sentitzen, gizonen % 2,1en aldean.

Plan Internacional erakundeak Safer Cities for Girls proiektuaren barruan (2021) egindako ikerketan, Espainian bizi diren 3.000 emakume gaztek baino gehiagok parte hartu zuten. Emakume horiek emandako testigantzaaren arabera, emakume gazteen % 78k kaleko jazarpena jasan zuten; eta % 90ek ez zuten lekukoak laguntzarik jaso.

Metropoli-eremu jakin bat aztertzen badugu, Bilboko auzoetako Hiri Behatokiaren arabera⁹, 20 puntuko aldea dago emakumeek eta gizonek ordu jakin batzuetan sentitzen duten segurtasunari dagokionez; adibidez, emakumeen % 40k arriskutsutzat jotzen dute beren auzoa edo bizilekua eguneko ordu jakin batzuetan, gizonen % 22ren aldean.

⁸ Emakumeen aurkako indarkeria matxista EAEn: pertzepzioa, intzidentzia eta segurtasuna 2012

⁹ Bilboko auzoetako Hiri Behatokia

Emakumeak seguru sentitzeko ez da nahikoa hiriaren dimentsio fisikoari erreparatzearekin (dimentsio fisikotzat hartuta kaleetan gune seguruak sortzeko elementuak eraikitzeaz eta diseinatzeaz arduratzen den hiri-dimentsioa, argiztapena, mantentze-lanak, garbiketa, seinaleztapena eta ikusgarritasun-irizpideak baliatuta, besteak beste). Hiriak seguruak izateko, ezinbestekoa da auzoak suspertzea, eremu publikoa harreman sozialen muina izan dadin, gertutasuna nagusi den hiri-sarearekin, aukeretan eta jardueretan aberats, jendea une oro egon dadin kaleetan, zaindari pasibo gisa. Emakumeek toki ezagun eta segurutzat hartzen badute hiria, aukera izango dute eguneroko lanak askatasunez eta modu autonomoan egiteko, eta, hala, gizarte zuzenagoa eta elkartuagoa erdietsiko da.

Beraz, mugikortasun-planetan eta -azpiegituretan nahiz hiri-espazioaren diseinuan genero-ikuspegia txertatzeko ezinbestekoa da eguneko 24 orduen eta asteko zazpi egunen zikloa kontuan hartzea, eta emakumeen mugikortasun-dinamika tenporalak aintzat hartzea. Zeregin horretan, arreta berezia jarri behar zaio pertsonen gauetako mugikortasunari, eta ikusi behar da nola baldintzatzen duten generoak, beldurraren pertzepzioak, garraio publikoaren maiztasun txikiagoak edo konexio intermodal eskasak.

Hiri-eremu berriak planifikatzean eta lehendik dauden auzoak berroneratzean genero-ikuspegia txertatzeko, herritarrei eguneroko jarduerak hurbileko ingurunean garatzen lagunduko dieten **beharrezko zuzkidurak** identifikatu behar dira. **Ekipamendu** ezberdinak (bai osasun- eta hezkuntza-zerbitzuak, bai lan- eta familia-bizitza bateratzeko beharrezkoak direnak, eskolak edo haurtzaindegiak kasu) behar bezala banatzea eta erabiltzea funtsezko elementu dira hirietan zaintza-lanez arduratzen diren pertsonentzat (emakumeak dira gehiengo gaur egun) eta haien zaintzen beharra duten pertsonentzat. Horrez gain, emakumeek beren aisia-denboraz gozatzeko duten moduak aditzera ematen digu zer presentzia duten aisialdirako eta entretenimendurako hiri-ekipamenduetan.

Hiri-ekipamenduak lurraldeari lotuta egotea da erronka nagusietako bat. Hori lortzeko, instalazio horien erabilerak zabaldu beharko liriateke, bai eta ekipamenduak behar bezala bateratu ere, eremu publikoaren elementu aberasgarri izan daitezkeen; halaber, loturarik gabeko eta erabilera sektorialaren arabera isolatutako pieza izateari utzi beharko liokete ekipamendu horiek.

Laneguneri buruzko EAEko mugikortasun-inkestak adierazten du ikasketek eragindako joan-etorri kopurua antzekoa izan arren emakume eta gizonen artean (% 13,3 eta % 13,7, hurrenez hurren) badela alde nabarmenagoa **osasun-instalazioen** erabileran. Emakumeek osasun-egoera txarragoa dutenez (batik bat adinekoek, gehiago bizi direlako) eta mendeko pertsoneri lagundu behar dietenez, maizago joan behar dute osasun-instalazioetara (osasun-kudeaketan ondoriozko joan-etorrien kopurua % 3,3 da emakumeen kasuan eta % 2,7 gizonen kasuan)¹⁰. Emakumeek, bestalde, denbora gehiago ematen dute etxeko erosketak egiten (54 minutu emakumeek eta 48 minutu gizonen); horri egin beharreko joan-etorriak erantsi behar zaizkio (emakumeek % 11,6; gizonen % 5,5). Hori guztia dela eta, esan daiteke emakumeak direla osasun- eta merkataritza-instalazioak gehien erabiltzen dituztenak eta horietara joan-etorri gehien egiten dituztenak.

¹⁰ EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta (2016)

Aisiari dagokionez, gizonen denbora gehiago eskaintzen diete kirol-jarduerei (1:23 minutu 1:17 minuturen aldean lanegunetan, eta are gehiago asteburuetan), bai eta aisia aktiboko jardueri ere oro har (2:29 minutu eta 2:02 minutu, hurrenez hurren). Bilbon, adibidez, alde nabaria dago emakumeek eta gizonen egiten duten kirolaren artean; izan ere, 16 puntu txikiagoa da emakumeen kasuan, eta 22 puntukoa 16 eta 30 urte bitarteko adin-taldean¹¹. Instalazioak urrun egoteak, emakume gutxiagok ibilgailu pribatua izateak eta etxeko beste lan batzuk egiten ematen duten denbora luzeagoaren ondoriozko ordutegi-murrizketak zaildu egin dezakete emakumeek gizonen bezainbat erabili ditzaten hirietako kirol-ekipamenduak.

Bilboko metropoli-eremuan, eguneroko jarduera egiten den zonan dauden ekipamendu eta zerbitzuen presentziari 10etik 7,8ko nota eman zaio osasun-zentroen kasuan, eta 7,5ekoa ikastetxeen kasuan; kirol-zentroek balorazio txikiagoa lortu dute (7,0). Hiri-eremu horretan bizi diren emakumeen % 80k adierazi dute erabat edo nahiko ados daudela baieztapen honekin: ekipamendu eta zerbitzuen irisgarritasun ona dute oinez zein garraio publikoan. Pertsonen premiak asetzeko eta eguneroko bizitzako jardueretarako ekipamenduak eta zerbitzuak onargarriak dira, baina nabarmen hobetu daitezke erreprodukzio-lanak eta pertsonen arreta errazteko ekipamenduak eta zerbitzuak (% 53 baino ez daude erabat edo nahiko ados baieztapen horrekin).

Distantzia laburrak oinarri dituen hiri-planteamendua, ekipamenduak behar bezala banatuta dituen, denok iristeko moduan; bide-azpiegitura egokia duena, bai eta garraio publiko sare efizientea ere. Baldintza horiek guztiak nahitaezkoak dira emakumeek eta gizonen hiriak eskaintzen dituen ekipamenduak eta zerbitzuak berdintsu erabili ahal izateko. Gainera, egungo testuinguru demografikoa kontuan hartzen badugu, biztanleriaren % 25 inguruk 65 urte edo gehiago baititu (horietatik % 57,27 emakumeak dira), auzoko zuzkiduren inklusioa edo hobekuntza funtsezko alderdia da adin-talde horri eguneroko bizitzan laguntzeko; izan ere, horrela, denbora luzeagoan aktibo eta autonomo izango dira, eta bizitzaren zatirik handiena igaro duten auzoetan bizitzen jarraitu ahal izango dute.

Genero-ikuspegia lurralde- eta hiri-plangintzan txertatuz gero, eremu publikoak, ekipamenduak, etxebizitza eta abar beste modu batera pentsatuko dira, zaintzalanak eta lan ordaindua ahalik eta modu efizienteenean eta zailtasun gutxienekin egin ahal izateko moduan, hain zuzen ere. Era berean, eremu publikoek eta garraioak seguruak izan behar dute, kalteberatasun-egoeran bizi diren emakumeen premiak (gaitasun ekonomikoarekin lotutako mugak barne) kontuan hartu behar dira, hala, herritar guztien bizi-kalitatea hobetuko duten lurralde eta hiri seguruagoak eta bidezkoagoak sortzeko.

Zaintzaren beharrei hobekien erantzuten dien hiri-habitataren ereduak ezaugarri hauek dituela frogatu da: trinkotasuna, distantzia laburrak eta gertutasuna, garraio-sistema publiko egokia, kalitatezko eremu publiko eta garraio seguruak, askotariko erabilerak, eta auzoetan ekipamendu-sistema egokia izango duena adingabeen eta mendeko pertsona zaharren zaintzarako (asistentzia-, eskola-, osasun-, hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduak). Etxebizitzaren eta pertsonen eguneroko bizitzako jarduera nagusiak (batez ere lan-karga bikoitza duten

¹¹ [Bilboko auzoetako Hiri Behatokia](#)

pertsonenak) garatzen diren lekuen arteko hurbiltasuna oinarritzat hartzen duen hiri kontzeptu hori funtsezkoa da pertsona horien bizi-kalitatea eta kargura dituzten pertsonena hobea izan dadin. Hori guztia lagungarria da norberaren eta familiaren bizitza lanarekin uztartzeko; hala bada, errazago irits daiteke jendea lantokira eta bizitzeko beharrezkoak diren ekipamendu ezberdinetara, ahalik eta denborarik laburrenean eta arrazoizko prezioan.

Azken urteotan «15 minutuko hiria» izenez ezagutzen da eredu mota hori. Kontzeptu horren azpian ideia hau dago: hiriko auzo guztietatik 15 minutuko bidaia nahikoa izatea eguneroko premietara iristeko. Azken batean, helburua da osasuna, ekitatea eta klima-aldaketarako egokitzapena sustatu ditzakeen hiri-eredu bat eraikitzea eta, horretarako, erabilera mistoko auzo ibilerraz eta trinkoak sortzea eta azpiegitura berdeak txertatzea. 2020tik, Paris aitzindaria izan da 15 minutuko hiriaren kontzeptua bere egiten; kontzeptu horrek duela gutxiko beste hirigintza-diseinu batzuetan ere baditu sustraiak, hala nola Bartzelonako superetxadietan.

Kale, plaza, parke eta abarren **egitura herritarrekin bat etortzea**, bestalde, ezinbestekoa da hirietan berdintasunezko guneak eraikitzeko. Inguruko seinaleek erabat baldintzatzen dute bizi garen eremuak interpretatu eta ulertzeko modua, konturatu gabe apurka barneratuz joan garena: gizonak dira oinezkoak eta gidariak; emakumeak, berriz, zaintzarekin eta etxearekin zerikusia duten espazioetan dira nagusi, eta gutxietsita daude hirietan oro har. Eremu publikoan emakumeei aipurik ez egiteak, esate baterako, kaleen, plazen, ekipamenduen eta abarren nomenklaturan, komunitateetako kide izatearen sentimendu-falta areagotzen du emakumeengan. EAEko hiru hiriburuak adibidetzat hartzen baditugu, Bilboko¹² kale-izendegiak 28 emakume-izen baino ez ditu; Donostian, kaleen % 10,0k baino gutxiagok dituzte emakume-izenak kaleko parte diren¹³ hiri-elementuetako batzuetan; Gasteizen, berriz, emakume izenak udalerriko kale-izendegi osoaren % 14,6 dira¹⁴.

Aurreko datuek adierazten duten bezala, emakume gutxi agertzen dira kale-izendegietan. Hala ere, EAEko hiriburuetan gauzatutako ekimen batzuk lagungarriak izan dira bide publikoetan agertzen diren emakume horien berri emateko herritarrei; horrela, haien lana eta memoria aintzatesten laguntzen da. Bilboko Udalak, esate baterako, «Kaletarrak»¹⁵ proiektua gauzatu zuen: hiriko zenbait tokitan totem batzuk jarri ziren, haietako bakoitzarekin Bilboko kale-izendegi femeninoa osatzen duten 28 emakumeak irudikatzeko. Gasteizen, «Ikusarazi beharreko historia: emakumeak Gasteizen»¹⁶ ibilbide historiko-artistikoaren bidez, hiriaren historiari ekarpena egin dioten emakumeen lana ezagutarazi eta baloratu nahi da. Horrelako ekimenek inspirazio-iturri izan behar dute beste hirigune batzuetarako, hainbat eta hainbat emakumeren memoria, biografiak eta testuinguruak berreskuratzen lagundu baitezakete; bestela, oroitzapen horren memoria eta jatorria opaku bihurtzen dira.

¹² Bilboko Udalaren albisteak (2021eko azaroaren 17a)

¹³ Zubiria, A. (2021eko martxoak 1). Mucho más que unas calles con nombre de mujer. *Noticias de Gipuzkoa*. Hemendik jasoa: <https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/donostia/2021/03/01/calles-nombre-mujer/1093212.html>

¹⁴ Campo, JL (2021eko urriaren 25a). Un callejero más femenino para Vitoria. *Noticias de Álava*. Hemendik jasoa <https://www.noticiasdealava.eus/alava/2021/10/25/callejero-femenino-vitoria-1068757.html>

¹⁵ Bilboko udala:Kaletarrak proiektua

¹⁶ Gasteizko Udala: «Ikusarazi beharreko historia: emakumeak Gasteizen»

Zehazkiago, hiri-espazio publikoak diseinatzean eta hirietan esku hartzean genero-eta dibertsitate-ikuspegia txertatzeak berekin dakar pertsona guztiek hiriaz gozatzea eta hiria bereganatzea helburu duen logika baliatzea. Horretarako, berriki argitaratutako eskuliburuetan, hala nola LM Lemos eta SN Lovecchio-ren eskuliburu argentinarrean (2021) **hiriko espazio publikoaren eguneroko esperientzian kontuan hartu beharreko elementu garrantzitsu batzuk** proposatzen dira:

- **Segurtasunari** dagokionez, arreta berezia jarri behar da espazio publikoaren konfigurazioan bai eta pertsonen bistaratzea oztopa dezaketen elementu guztietan ere, hala nola argiztapenean, landaredian eta abarretan.
- **Irigarritasunari** dagokionez, funtsezkoak dira pertsonen autonomia sustatzen duten seinaleak, panelak eta mapak.
- **Erabileren nahasturaz** arduratzea: ezinbestekoa da berdegune publikoak kontuan hartzea zaintza-politikak egiteko, hau da, mendekotasun-mailaren bat duten pertsonengan (adinekoak, adingabeak, desgaitasunen bat duten pertsonak) eta zaintza-lanak egiten dituzten pertsonengan ongizatea sortzeko.
- **Ondarearen eta memoriaren kontserbazioari** dagokionez, garrantzitsua da ulertzea elementu horiek ez direla neutralak izan, baizik eta sortzen diren gizartearen isla direla, eta gizarte horrek botere-egitura patriarkalak erreproduzitzen dituela. Ildo horretan, hirien ondare historikoan eraikuntza kolektibo baten emaitza ikusten dugu. Eraikuntza kolektibo horrek ikusezin bihurtu du gizarte-eragile batzuen eta gizartearen erdiaren (emakumeak) rola, eta eskuragarritasun- eta gozamen-gabeziako egoerak sortu ditu. Ondareak babesteko eta/edo identifikatzeko prozesuan genero-ikuspegia txertatzeak berekin dakar emakumeek edo beste kolektibo batzuek kultura-jardunbideetan duten rola agerian uztea eta genero-estereotipoen erreprodukzioa eragozteak.

2.2. BALIABIDEAK ESKURATZEKO DESBERDINTASUNAK

Zenbait baliabide lortzeko aukerak nabarmen baldintzatzen emakumeek eta gizonen duten modua bizi diren hiriak bizitzeko eta gozatzeko. Genero-ikuspegiaren hirigintzak berekin dakar, halaber, kontuan hartzea gorputzen aniztasunak mugikortasun-aukerak baldintzatzen dituela (mugikortasun urriko pertsonak, haurrak, adinekoak, gazteak, transgeneroak, pisu eta neurri desberdinetako pertsonak). Horregatik, aztertu behar da nola eragiten dieten generoak eta generoak beste ezaugarri batzuekin (adina, jatorria, diru-sarrerak, gaitasunak, bizikidetzaren unitate mota, auzo edo populazio mota) dituen elkarguneak pertsonen hiri barruan dituzten bizi-aukerak. Hiri-plangintza, beraz, ikuspegi integratzaile berrantsatu behar da, bertan bizi diren kolektibo guztiak haien premien arabera barne hartuz, parekotasuna bermatzen duten garapenerako guneak sortze aldera.

EUSTATEk emandako datuen bidez deskribatzen dira baliabide hauetara sartzeko dauden desberdintasun nagusiak (hiri-eremuan gizonen eta emakumeen duten posizio desberdina zehazten dutenak):

- **Baliabide ekonomikoak:** 2022ko lehen hiruhilekoan, emakumeen okupazio-tasa gizonena baino 9 puntu inguru txikiagoa da, eta alde hori handiagoa da haien ardurapeko seme-alaben kopuruak gora egin ahala: 10 puntu seme edo alaba bakarria dutenean, eta ia 15 puntu beren ardurapean bi seme-alaba edo gehiago dituztenean. Lanagatik errenta-mailari dagokionez, 2019an, emakumeen diru-sarrerak gizonenak baino % 38 txikiagoak ziren.

Landa-eremuan, nekazaritzan (baliabide-iturri nagusietako bat) jarduteko genero-desberdintasunak agerikoak dira ustiatzearen titulartasunean: 2022ko nekazaritza-errolaren arabera, emakumeek ustiatzearen % 25,65 baino ez dituzte zuzentzen EAEn.

Datuok argi eta garbi uzten dute emakumeen eta gizonen diru-sarreraren arteko aldea; alderdi hori oztopoa izan daiteke ibilgailu pribatua nahiz behar-beharrezkoa den etxebizitza izateko.

Emakumeek gaitasun ekonomiko txikiagoa izateak lotura du maiz soldata txikiagoak jasotzearekin, bai generoaren arabera soldata-arrakalaren eraginez, bai lanaldi murriztagoak izateagatik (EAEn enplegua duten emakumeen % 28k lanaldi partziala dute, gizonen % 9ren aldea), askotan lana familia-bizitzarekin bateratu ahal izateko. Horrek guztiak gutxitu egiten ditu emakumeek **etxebizitza izateko** aukerak, batez ere bikotekiderik ez duten emakumeen kasuan, emakumeak buru diren guraso bakarreko familien kasuan (guraso bakarreko familia guztien % 81, jasotako azken datuen arabera)¹⁷ eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kasuan.

¹⁷ EAeko oinarriko adierazle demografikoak etxe edo familia motaren arabera (2019). Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila

Alokairuan bizi diren EAEko emakumeen % 2,4 etxetik kanporatzeko mehatxupear bizi dira, berehala edo ez, gizonen % 1,8ren aldean. Jabetzako etxebizitzaren kasuan ere zenbakiak handiagoak dira emakumeen kasuan: % 0,56 gizonen % 0,25aren aldean¹⁸. Askotarikoak dira emakumeek etxebizitza (alokairuan zein jabetzan) izateko zailtasunak; horiek guztiek, edozelan ere, agerian uzten dute kudeaketa eta etxebizitza lortzeko politika publikoan errealitate horri heldu behar zaiola.

Ibilgailu pribatua oinarri duten bide-azpiegiturek bizimodu garestia dakarkie autoa gehienbat erabiltzen dutenei, eta bazter uzten dituzte hura eskuratzeko aukerarik ez duten pertsonak. Esate baterako, Gasteizen, gidabaimena duten emakumeen proportzioa % 56,1 da, eta gizonena, berriz, % 74,7¹⁹. EAEn emakumeek egiten dituzten joan-etorri guztien % 28,2an bakarrik erabiltzen dute autoa; gizonek, berriz, joan-etorrien % 42,2an²⁰. Ibilgailuaren erabilera murriztuz gero, emakumeek zailtasunak izan ditzakete hiriak eskaintzen dizkien zerbitzu eta aisia-aukera anitzak baliatzeko, etxetik distantzia edo ordutegi-bateraezintasuna direla eta garraio publikoa erabili ezin dutenean.

Hirietako egungo egiturak lehentasuna ematen dio ibilgailu pribatuan oinarritutako mugikortasunari; lurraldeko zerbitzuak, bestalde, gero eta sakabanatuago daude. Horregatik guztiagatik, emakumeek oztopo handiagoak dituzte eguneroko jarduerak eta erantzukizunak egin ahal izateko.

- **Denbora:** Emakumeek gizonek baino denbora gehiago ematen dute etxeko lan batzuetan. Adibidez, 1:25 ordu erabiltzen dituzte batez beste janaria prestatzen, gizonen 0:56 orduren aldean; etxea garbitzen 1:18 ordu ematen dituzte emakumeek, eta gizonek, berriz, 1:00²¹. Era berean, mendeko pertsonak zaintzen ere denbora gehiago ematen dute emakumeek. Hala bada, emakumeek batez beste 1:45 ordu igarotzen dituzte haurrak zaintzen, eta gizonek, berriz, 1:21 ordu. Emakumeek, gainera, askoz denbora gehiago igarotzen dute hurrekin jolasten eta haiei erakusten: 2:06 ordu; gizonek, berriz, 1:39 ordu.

Esan bezala, emakumeek gizonek baino denbora gehiago erabiltzen dute etxeko jardueretan (erosketak, mendeko pertsonak zaintzea nahiz etxeko lanak). Horri alderdi profetionalen emandako denbora erantsiz gero, argi dago denbora kudeatzea ezinbesteko zaiela emakumei, lana, familia eta bizitza pertsonala uztartze aldera.

Emakumeek egunero egiten dituzten joan-etorri horien konbinazioak (lantokira, eskolako ekipamenduetara, eremu publikoetara, merkataritza-guneetara, etab.) «joan-etorri poligonalen» egitura sortzen du²². Ibilbideen egitura horrek, emakumeek duten denbora mugatuak eta askotan garraio publikoaren bidez iritsi ezin izanak edo oinez joateak (horrela mugitzen baitira gehien emakumeak) eginkizun garrantzitsua ematen diete auzoei, nahasketa eta gertutasuna oinarri, aukera ematen baitiete emakumei hirian eguneroko bizitza garatzeko.

¹⁸ EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik. Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea, 2017.

¹⁹ Gasteizko mugikortasunari buruzko inkesta, 2019.

²⁰ EAEko laneguneko mugikortasunari buruzko inkesta (2016).

²¹ Unitateak ordu eta minututan.

²² Emakumeek egiten dituzten bidaiak espazio-eredu poligonalak dute oinarri; izan ere, zenbait joan-etorri lotzen dituzte hiriko toki ezberdinen artean, bata bestearen atzetik, familia-bizitzarekin eta enpleguarekin erlazionaturiko lan guztiak egin ahal izateko.

Genero-ikuspegia hirigintzan txertatzeko, lehentasuna eman behar zaie eguneroko mugikortasunari erantzuten dioten jarduera guztiei, joan-etorrietan igarotako denborak murrizteko eta, hartara, biztanleek, beren aniztasunean, eguneroko jarduera guztiak ahalik eta modu seguru, autonomo eta eskuragarrienean egin ahal izateko. Denbora oztopo bihur ez dadin emakumeek eguneroko bizitzan egiten dituzten jarduera guztiak kudeatzeko, ezinbestekoa da eguneroko ibilbide koordinatuen sare bat sortzea. Ibilbide horiek gai izan behar dute eguneroko beharrak ahalik eta denborarik laburrenean eta nahitaezko edo behar ez diren joan-etorri gutxiarekin asetzeko.

lido horretan, kontuan izan behar da, lurraldea antolatzeke unean, erabilera bakoitza non kokatu, batez ere eguneroko bizitzarako nahitaezkoak direnak; hala, garraiobideetan egin beharreko joan-etorriak ahalik eta gehien murrizteko distantzietan kokatu beharko lirateke. Ikuspegi horrek berekin dakar batzuetan alde batera uztea errentagarritasun ekonomiko hutsa, batez ere garraio-azpiegiturekin zerikusia duen errentagarritasunari dagokionez, eta helburutzat hartzea ondo konektatutako auzo hornituez osatutako lurralde polizentriko batek bertan bizi diren pertsona guztientzat dakarren gizarte-onura hutsa.

- **Prestakuntza:** Azken urteotan, hazi egin da hiriarekin loturiko prestakuntza emakumeen artean; hala ere, oraindik ez da genero-ikuspegia aintzat hartzen hiriak planifikatzeko eta diseinatzeko unean. Izan ere, ingeniaritza- eta arkitektura-ikasketak amaitu zituzten guztien artean, emakumeak % 30 baino ez ziren izan. Bestalde, emakumeak gutxiengoa dira erdi-mailako lanbide-heziketako **eraikuntza eta obra zibila** adarrean matrikulatutako ikasleen guztizkoari dagokionez: % 18 baino ez ziren emakumeak izan; kopurua % 40ra igo zen goi-mailako prestakuntzan. Beste adar batzuetan ere gutxiengoa dira, hala nola «ibilgailuen garraioa eta mantentze-lanak» adarrean, non erdi-mailako zein goi-mailako ikasketetan matrikulatutako ikasleen guztizkoaren % 5 soilik baitira.

Datu horiek justifikatzen dute emakumeak erritmo motelean sartzea sektore maskulinizatu horretan, eta horrek, zalantzarik gabe, eragina izaten du lurralde-plangintza eta hirigintza antolatzeke eta geroago gauzatzeko antolaeran eta ikuspegian.

1 Taula: 2019-2020 ikasturtean EAEn matrikulatutako ikasleak

2019/2020 ikasturtean EAEn matrikulatutako ikasleak	G. %	E. %
Ingeniaritza Zibileko Gradua	% 65,0	% 35,0
Geografia eta Lurralde Antolakuntzako Gradua	% 75,0	% 25,0
Soziologiako Gradua	% 46,0	% 54,0
Arkitektura Teknikoko Gradua	% 50,0	% 50,0

Geuk egina, irakaskuntzako estatistikaren datuetan oinarrituta. EUSTAT

- **Teknologia berriak.** *Smart cities* edo hiri adimendunak dira azken hamarkadan ezarritako hiri-birsorkuntzako paradigma berria²³. Hiri adimendunak herritarren premiak antzeman behar ditu, baita haien eskakizunei erantzun ere; horretarako, ezagutza bihurtu behar ditu herritarren eta zerbitzu publikoetako sistemen eta elementuen arteko elkarrekintzak. Hiriak, horrenbestez, ezagutza hori izango du oinarri ekintzak garatzeko eta kudeatzeko.

Arreta berezia jarri behar da hiri adimendunen bilakaeran; izan ere, genero-desparekotasunak areagotu ditzake hiri-eredu honek, teknologia berriak gehien erabiltzen dituzten herritarren eta horietatik gehien aldendutakoen arteko arrakala digitala sakondu baitezake. Gizonek, adibidez, emakumeek baino maizago erabiltzen dute Internet EAEn, hain zuzen ere ehuneko 4,4 puntuko aldearekin.

Pertsona guztien bizi-eremu berean erraztuko duten hiriak eratzeko, non lan-, familia- eta/edo aisia-bizitzaren alderdi guztiak bateragarri egin ahal izango diren, lagungarria izan daiteke teknologia sartzea; izan ere, teknologiak bateragarritasuna erraztea, joan-etorriak minimizatzea eta ordutegiak malgutzat ahalbidetu dezake, esate baterako, telelana, e-learning, mugikortasun adimenduna eta antzeko soluzioen bidez. EUSTATEk 2020an bildutako datuen arabera, irteera-ordutegi malgua duten emakumeak % 29,3 dira, eta gizonak, berriz, % 35,6. Gizon eta emakume askok lana eta bizi-eremua hobeto uztartzeko beharra dute. Telelanak, esaterako, eguneroko bizi-eremuko zeregin-katea gauzatzen lagun diezaieke. 2019ko pandemiaren ondoren, gehiago dira gutxienez egun erdiz etxean lan egiten duten emakumeak; kopuru hori % 6,1ekoa zen 2019an eta % 11,7koa 2020an.

Telelana txertatzean, ordea, genero-ikuspegia aplikatu behar da eta erantzunkidetasun-printzipioa kontuan hartu. Horrela, enpresek ziurtatu beharko lukete gizonak eta emakumeak ekitatiboki hartzea lan malguko modalitate berriak, hala nola telelana. Bestela, arriskua dago etxeko lanetan eta mendeko pertsonen zaintzan emakumeen espezializazioa bultzatzeko. Arduradun politikoei horretaz jabetu eta sektore pribatuarekin lankidetzan aritu behar dute, lan malguaren arloko berrikuntzek etorkizunean genero-desparekotasun handiagoa ekarriko ez dutela bermatzeko.

Egun, milioika gailu teknologikoren, erregistro administratiboetako euskarrien eta abarren bidez herritarrei buruz ematen den informazio ugariari esker kudeatzen dira, hein handi batean behintzat, *Smart cities* delakoak. Informazio horrek, gainera, ateak ireki dizkio errealitateari buruz ikertzeko, diagnostikatzeko eta hausnartzeko eta, batez ere, erabakiak hartzeko ikuspegi berri bati. *Big Data*²⁴ erabiltzeak informazioa barra-barra eskuratzea ahalbidetzen du, eta horrek, bide ematen du genero-arrakalak identifikatzeko, beste era batera ezinezkoa zatekeena, eta, hartara, emakumeen arazoak eta

²³ *Smart city* delakoa elkarri lotutako sistema konplexua da, teknologia berriak baliatzen dituen honako alderdi hauek kudeatzeko, besteak beste: garraio publiko eta pribatua behar bezala funtzionatzea, baliabide energetiko eta hidrikoen modu efizientean erabiltzea, babes zibila eta alderdi sozioekonomikoak (eremu publikoen eta merkataritza-egituraren bizitasuna, gorabeheren berri ematea herritarrei eta bisitariei...).

²⁴ Teknikoki, *Big Data* kontzeptuak betiko prozesu edo tresnak erabiliz prozesatu edo aztertu ezin den informazio guztia hartzen du barnean.

beharrizanak ikusgai jartzeko. Nolanahi ere, eta berriki egindako azterlanek adierazten duten legez, partzialtasun ugari direla eta, ez dira dimentsio jakin batzuk neurtzen, batik bat emakumeengan eragina dutenak; dimentsiook ezinbestekoak dira errealitatea osorik neurtzeko. Hala, teknologia digitalak eskuratzeko arrakala da *Big Data* erabiltzeko funtsezko oztopoetako bat, emakumeei dagokiena batez ere, horiek ezin erabili izateak ikusezin bihurtzen baititu; horren eraginez, gainera, emaitzak ez dira osoak, emakume adindunen eta kalteberen profilei buruzko informaziorik ez baita jasotzen. Lortutako ondorio oro, beraz, baliogabea izango litzateke.

Hori dela bide, ezin da informazio mota hori soilik oinarri hartu diagnostikoak egiteko; aitzitik, analisia aberastu ez ezik beharrezko ñabardurak ere ematen dituzten beste ikerketa-tresna batzuekin uztartu behar da aipatu informazioa. Horri gehitu behar zaio EAEn txikiagoa dela IKTen sektorean lan egiten duten emakumeen kopurua (% 34,9 emakumeak dira eta % 65,1 gizonak). Teknologiaren sektorean emakumeen presentzia txikiagoa izateak (teknologia horietako batzuk hirigintzan aplika daitezke) berekin dakar emakume gutxiagok lagundu ahal izango dutela genero-arrakala digital oro desagerrarazteko beharra agerian uzten.

Big Data erabiltzearen beste arrisku bat da teknologiek, askotariko tramankuluen bitartez, generoaren inguruko estereotipoak eta aurreiritzi partzialak bereganatzeko gaitasun handia dutela. Hala bada, emakumeei buruzko aurreiritziko ideiak onartu litezkeela aurreikusi behar da, gizarte patriarkalaren eraginez herritarren diskurtsoetan sorburu dutenak, eta horien adierazle dira datuen joera inplizituak.

Beste alde batetik, administrazio askok gero eta gehiago erabiltzen dituzte plataforma digitalak, bai kudeaketa pertsonalak egiteko bai herritarrekin batera erabakiak hartzeko. Zehazki, **administrazio elektronikoa** edo e-administrazioa (administrazioak Internet bidez zerbitzu ematea, alegia) baliagarri izan daiteke bizitzako arlo ezberdinak hobeto uztartzeko. Hala ere, administrazio publikoa digitalizatzean, kontuan izan behar da biztanleriaren zati handi batek ez duela baliabiderik, ezta trebetasun digital nahikorik zerbitzu horri ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, edo ez diola onura subjektiborik ikusten hura erabiltzeari. Hala, gizonen % 84,1ek dute ordenagailu bat beren etxeetan; emakumeen kasuan, berriz, % 78,1ek dute ordenagailua; etxeetako Internetarako sarbideari dagokionez, aldea murriztu egiten da: gizonen % 94,1ek erabiltzen dute ordenagailua, eta emakumeen % 90,2k.

Lana: Hiri-antolamenduak eta -kudeaketak askotariko lanpostu eta sektoreak biltzen ditu (arkitektura, obra zibila, ekologia eta ingurumena, informatika, energia, zerbitzuak, etab.). Oraino, gainera, ez dago bereizi gabeko daturik jarduera profesional horiei buruz. Hori guztia dela eta, zaila da jakitea zehatz-mehatz zenbat emakume dauden bertan. Lehen aipatutako sektoreetako batzuetan lan egiten duten emakumeen kopuruari buruz eskuragarri dauden azken datuek erakusten dutenez, gizonak gailentzen diren sektore horietan lan egiten duten emakumeen kopurua oraindik ere ez da nahikoa esanguratsua emakumeen presentzia ekitatiboa dela esateko.

2 Taula: Emakume enplegatuek EAEn, jarduera-atalaren arabera (2021)

Emakume enplegatuek EAEn, jarduera-atalaren arabera (2021)	E. %
Ur-hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskutsatzea	% 21,44
Eraikuntza	% 10,16
Garraioa eta biltegiatzea	% 20,54

Geuk egina, biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren datuetan oinarrituta. EUSTAT

Hirigintza-arloekin edo -zerbitzuekin lotutako lanpostu batzuetan dauden emakume kopuruak ere aditzera ematen du emakume gutxi sartu direla jarduera-arlo horietan, gizartean zenbait lanposturen inguruan dagoen irudi estereotipatua dela eta, besteak beste: hondakin-urak biltzea eta tratatzea eta hondakinak ezabatzea, hiriko nahiz errepideko garraiorako ibilgailuak gidatzea, edo eraikuntzako eta antzekoetako egitura-lanak egitea. Gizon gehienak zuzeneko produkzioko lanpostuetan dihardute eraikuntzan, mantentze-lanetan, gidari-lanetan, segurtasunean edo zuzendaritzan; emakumeek, berriz, zeharkako zereginekin eta estereotipo femeninoekin zerikusia duten lanpostuetan egin ohi dute lan, esate baterako, bezeroarentzako arretan, administrazio-lanetan edo garbiketaren lanetan.

Sektoreko **enpresa publiko** batzuetan emakumeen presentzia aztertu da, eta ikusi da hor ere emakumeen presentzia oso txikia dela gizonekin alderatuta. Donostiako autobus-sarea kudeatzen duen DBUS enpresan, emakumeak plantillaren % 13²⁵ dira soilik; Euskotrenen, emakumeak langileen % 26²⁶ dira, eta Bilboko metroan, berriz, % 31,7²⁷. Emakumeek betetzen dituzten lanpostu asko merkataritzarekin, laguntzarekin eta/edo administrazioarekin lotuta daude. Zuzendaritza-, eragiketa- edo mantentze-lanekin lotutako emakumeen kopurua txikiagoa da. Beraz, sektorean lan egiten duten emakumeen kopuruak aztertzeaz gain, funtsezkoa da emakume horien profil okupazionala eta eskala profesionala aztertzea, kasu honetan segregazio bertikal eta horizontal argia dagoela erakusten baitute.

Aurreko datuak ikusita, ezinbestekoa da hiri-plangintzako sektore guztietan emakumeen kontratazioa eta sustapena bultzatuko dituzten genero-irizpideak ezartzea, askotariko mekanismoak erabilia, hala nola genero-klausulak azpiegitura berrien lizitazio publikoetan eta zerbitzuen azpikontratuetan (segurtasuna, garbiketaren lanak, etab.), zeharkako prestakuntza mugikortasun-sisteman, zerbitzuen kudeaketan, eraikuntzan eta birgaitzean eta abarretan inplikaturako erakundeei zuzenduta, kontratatzen dituzten enpresetan handiagoa izan dadin emakumeen presentzia.

²⁵ [Donostiako Tranbia Konpainiaren urteko memoriaren \(2020\) araberako datuak](#)

²⁶ [Euskotrenen urteko memoriaren \(2019\) araberako datuak](#)

²⁷ [Bilboko Metroaren urteko memoria \(2020\)](#)

2.3. EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTE-HARTZE DESBERDINA

Nahiz eta hirigintzaren arloko askotariko gaietan jarduten duten enpresetako eta erakundeetako zuzendaritzetan gero eta emakume gehiagok parte hartu, emakumeek erabakitze-prozesuetan duten parte-hartzea oraindik ere txikia da; hortaz, parte-hartze hori ez da nahikoa hiriak diseinatzeko eta hirietan esku hartzeko ikuspegi berriak gehitzeko.

Erakunde publiko garrantzitsuenetako batzuetan **lurralde-plangintza eta hirigintza alorrean erantzukizun politikoa** duten zuzendaritza-kargu nagusietan gizon baino emakume gutxiago daude; hain zuzen, kargu horien % 65 gizonek betetzen dituzte, eta % 35, berriz, emakumeek:

3 Taula: Emakumeen eta gizonen banaketa Euskal Administrazio Publikoan, lurralde-plangintzaren eta hirigintzaren arloan

Organismo edo Erakunde Publikoa	Saileko arduraduna
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila <ul style="list-style-type: none"> - Sailburua - Sailburuordeak 	Gizona 3 gizon
Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Saila (sailburua)	Emakumea
Gipuzkoako Foru Aldundia: <ul style="list-style-type: none"> - Mugikortasun eta Lurralde Antolaketaren Saila (diputatua) <ul style="list-style-type: none"> o Mugikortasunaren Zuzendaritza Nagusia (zuzendaria) o Lurralde Antolamenduarien Zuzendaritza Nagusia (zuzendaria) - Bide Azpiegituren Saila (diputatua) <ul style="list-style-type: none"> o Kudeaketa eta Plangintzaren Zuzendaritza Nagusia o Errepide Zuzendaritza Nagusia - Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Saila (diputatua) <ul style="list-style-type: none"> o Ingurumen Zuzendaritza (zuzendaria) o Lan Hidraulikoetako Zuzendaritza (zuzendaria) 	Emakumea Gizona Gizona Emakumea Emakumea Gizona Gizona Emakumea Gizona
Bizkaiko Foru Aldundia: <ul style="list-style-type: none"> - Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila (foru-diputatua) <ul style="list-style-type: none"> o Garraioen Zuzendaritza Nagusia (zuzendaria) o Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia (zuzendaria) - Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saila (foru-diputatua) <ul style="list-style-type: none"> o Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusia (zuzendaria) o Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusia (zuzendaria) 	Gizona Gizona Gizona Gizona Gizona
Arabako Foru Aldundia: <ul style="list-style-type: none"> - Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saila (diputatua) <ul style="list-style-type: none"> o Bide Azpiegituren Zuzendaritza (zuzendaria) o Mugikortasun eta Garraio Zuzendaritza (zuzendaria) - Ingurumen eta Hirigintza Saila (diputatua) <ul style="list-style-type: none"> o Ingurumen eta Hirigintzako Zuzendaritza (zuzendaria) 	Gizona Gizona Emakumea Gizona Emakumea
Bilboko Udala (zinegotzi arduradunak): <ul style="list-style-type: none"> - Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila - Etxebizitza Saila - Hiri Berronertzeko Saila - Obretako, Hiri Plangintzako eta Proiektu Estrategikoetako Saila - Herritarren Segurtasuneko Saila 	Emakumea Gizona Gizona Gizona Emakumea
Donostiako Udala (zinegotzi arduradunak) <ul style="list-style-type: none"> - Mugikortasuneko eta Garraioko Ordezkaritza - Hirigintza Sostengarriko Ordezkaritza - Hiri Proiektuen Ordezkaritza - Hiri Mantenimendurako Ordezkaritza 	Emakumea Emakumea Gizona Gizona
Gasteizko Udala (zinegotzia): <ul style="list-style-type: none"> - Lurraldearen, Klimaren aldeko Ekintzaren, Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Arloa <ul style="list-style-type: none"> o Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saila o Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren Saila 	Emakumea Emakumea Gizona

Geuk egina, organismo edo erakunde publiko bakoitzetik bildu ditugun datuak erabiliz.

Aztergai diren EAEko **enpresa publiko** batzuetako zuzendaritza-organoetako postuen % 20an soilik daude emakumeak. Oraindik, aztertu ditugun euskal enpresa askotan, emakumeek ez dute betetzen zuzendaritza-organigramako lanpostuen % 35 baino gehiago. Horrek agerian uzten du emakumeen ordezkari hiri eta hirigintza antolatzen jarduten duten enpresa publikoetan oraindik ere ez dela behar bezalakorik, sexu bien arteko oreka bermatzeko, nahiz eta legeak ordezkari orekatuaren parametro gisa ezartzen duen ehunekoa, hots, % 40, lortzeko ahaleginak egin diren.

4. taula: Emakumeen eta gizonen banaketa lurralde-plangintzarekin eta hirigintzarekin lotutako enpresa publikoen zuzendaritza-organoetan

Enpresa publikoa	E	G	E %	G %	Presidentetza
Euskotren ²⁸	2	7	% 22	% 78	G
Uraren Euskal Agentzia (Ura) ²⁹	3	2	% 60	% 40	E
Gasteizko Hiri Garraioak (TUVISA) ³⁰	6	8	% 43	% 57	E
DBus ³¹	5	9	% 36	% 64	G
Billboko Metroa ³²	5	16	% 31	% 69	G
Euskal Trenbide Sarea (ETS) ³³	2	7	% 22	% 78	G
ALOKABIDE ³⁴	2	6	% 25	% 75	E
Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa (IHOBE) ³⁵	3	4	% 43	% 57	G
Billboko Udal Etxebizitzak (TEA) ³⁶	6	11	% 35	% 65	G
Sociedad Urbanística de Rehabilitación de Bilbao SA (SURBISA) ³⁷	6	7	% 46	% 54	G
Vivienda y Suelo de Euskadi SA (Vivesa) ³⁸	3	4	% 43	% 57	G

Geuk egina, enpresa publikoen webgune ofizialean jasotako datuak oinarri hartuta

Kontsultatutako **elkargo ofiziale**tako batzuek emandako informazioaren arabera, bertako gobernu-batzordeetako ordezkari hiri eta hirigintza ere ez da orekatua:

- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala (EHAE): Sei emakumek eta sei gizonek parte hartzen dute, eta gizonekoa da elkargoko dekanoa.
- EAEko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniariei Elkargo Ofiziala: Gizonak dira gehienak: 9 kargu betetzen dituzte gizonek (baita dekanotza ere) eta 4 emakumeek.

Azkenik, hirigintzako beste erakunde edo elkarte batzuei dagokienez, emakume gutxi daude zuzendaritza-organoetan:

²⁸ Datu horiek [Euskotreneko](#) Administrazio Kontseiluko kideen batuketa dira

²⁹ Datu horiek [Uraren Euskal Agentziako](#) Administrazio Kontseiluko kideen batuketa dira

³⁰ Datu horiek [Tuvisako](#) Administrazio Kontseiluko kideen batuketa dira

³¹ [Dbus](#)-en webgunean agertzen diren datuak www.dbus.es

³² Datu horiek [Billboko Metroko](#) Administrazio Kontseiluko eta Zuzendaritza Taldeko kideen batuketa dira

³³ Datu horiek Administrazio Kontseiluko eta Zuzendaritza Taldeko kideen batuketa dira. www.ets-rfv.euskadi.net

³⁴ Datu horiek [Alokabideko](#) Administrazio Kontseiluko kideen batuketa dira

³⁵ Datu horiek Administrazio Kontseiluko eta Zuzendaritza Nagusiko kideen batuketa dira. [Ihobe](#)

³⁶ Datu horiek [Billboko Udal Etxebizitzak \(TEA\)](#) erakundearen Zuzendaritza Kontseiluko kideen batuketa dira

³⁷ Datu horiek [Surbisa](#) erakundearen Administrazio Kontseiluko kideen batuketa dira

³⁸ Datu horiek [Vivesa](#) erakundearen Administrazio Kontseiluko kideen batuketa dira

- Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoa: Lehendakaria gizon bat da, eta Administrazio Kontseilua 10 pertsonak osatzen dute; horien artean, bi baino ez dira emakumeak.
- Bizkaiko Garraio Partzuergoa (CTB): 19 gizon (presidentea barne) eta 7 emakume.

Egoera hori beste arlo batzuetara zabaldu daiteke; izan ere, generoan espezialistak diren emakume eta gizon gutxi daude hirigintzako politikak, planak eta jarduketak diseinatzeko, gauzatzeko eta horien segimendua egiteko fase ezberdinez arduratzen diren **teknikari adituen taldeetan**. Horrek erabat zailtzen du genero-ikuspegia txertatu ahal izatea.

2.4. GIZARTE-ARAUEN ETA BALIOEN ERAGINA

Hiriak agertokien puzzle batek osatzen ditu. Puzzle horretan, gero eta estuagoa da hiri-plangintzaren eta -kudeaketaren arteko harremana, eta etxeke gaiekin lotutako jarduera-sareek eta joan-etorriek eragin handiagoa dute eta desoreka sozial handiak eragiten dituzte herritarren artean. Hirietan askotariko pertsonak bizi dira batera, eta bakoitzak bere premien arabera erabiltzen du hiria; beharizan horiek lotura dute guneen erabilerarekin eta denboren antolaketarekin. Hiria egitura fisikoa eta egitura soziala batuz eraikitzen da. Giza harremanetan eragina duten genero-manuen arabera sortzen diren harremanek indartu edo ahuldu egin dezakete hiriaren eraikuntza hori.

Genero-atributu soziokulturalen ondorioz, norberak ordezkari fisiko bat izaten du hiriko espazioan. Hirigintzaren dimentsio sozialean jasangarritasun handiagoa lortuko bada, beharrezkoa izango da hiritar guztiak baldintza beretan aintzat hartzea, hiritarren premiei erantzuna ematen zaienean. Hortaz, eremu publikoan sartzeko sexuagatiko diskriminazio oro saihestu beharko da.

Historikoki, hiri-espazioak genero-rolen arabera diseinatu dira: gizoni jarduera publikoak egiteko espazio publikoa esleitu zaie; emakumeei, berriz, etxeak dakarren espazio pribatua. Genero-ikuspegia hirigintzari aplikatzeak zalantzan jartzen du banaketa hori, eta emakumeek produkzio-munduan duten parte-hartzea aldarrikatzen du. Era berean, berresten du lan erreproduktiboek eta zaintzarekin lotutakoek, etxeetako eremua hartzeaz gain, eremu hori gainditzen dutela eta, beraz, lan horiek arlo pribatutik haratago hedatzen direla. Hain zuzen ere, badirudi arlo publikoaren eta pribatuaren arteko muga horiek gero eta lausoago daudela gaur egungo hirietan, non etxea, zaintza edo intimitatea gero eta zabalagoa, konplexuagoa eta lausoagoa den hiri-espazio baten ezaugarriak diren.

Hiria eta hiriarri lotutako zerbitzuak eta ondasunak antolatzeke hirigintza-jardunbideak erabiltzaile-eredu maskulinoaren arabera diseinatzeke joerak ez du lagundu emakumeen eskaerak eta nahiak hiriko espazioan txertatzen, eta horrek mugak ezartzen dizkie emakumeei.

Hirien neutraltasun-falta, hots, hiriak antolatzean ikuspegi androzentrikoa gailentzea, hirigintzak aurre egin beharreko funtsezko zatia da, biztanleriaren konplexutasuna ulertzen duten hiri-eremuak eraikiko badira. Espazioak eredu bakarreko premisen arabera eraikitzen baldin badira, eredu horretako ezaugarriekin bat egiten ez duten pertsona guztiak baztertzen dira. Emakumeek eta gizonek harreman desberdina izaten dute ingurunearekin; harreman hori esleitzen zaizkien rol sozialen, denbora banatzeko moduaren eta egiten dituzten jardueren arabera da.

Hirigintzari aplikatutako genero-ikuspegiak berekin dakar produkzio-mundutik eratorritako eskakizunak zein erreprodukzio-mundutik eratorritakoak kondizio-berdintasuneko egoeran jartzea, eta zaintzek erantzukizun politiko, publiko, kolektibo eta komun gisa duten garrantzia aldarrikatzea. Pertsona guztiok behar dugu zainduak izatea eta zaintzea; denok izango gara besteen mendekoak gure bizitzaren uneraren batean. Emakumeak arduratu izan dira bizitza pribatuaren

ordaindu gabeko lan horretaz; gainera, gizonak familia-bizitzan parte hartzen hasi baino lehenago laneratuz joan dira emakumeak. Arlo biak (lana eta familia) uztartzea zail zaie oraindik emakume askori, ez baitute uztartze hori ahalbidetzen duten antolaketa-mekanismoak hiriko eremu publikoan. Bizi garen inguruneak, beraz, zaintzeko eta zainduak izateko oinarrizko premia horri erantzun behar dio, eta, hain zuzen ere, saihestu egin behar du zaintza ikusezin bihurtzea eta prekarizatzea.

Lan-zama bikoitza edukitzeak eragina du emakumeak hiriarekin erlazionatzeko moduan, eremu publikoa erabiltzeari, mugikortasunari, ekipamenduei probetxua ateratzeari eta erosteko nahiz etxebizitza erdiesteko aukerei dagokienez. Emakumeak dira kalearen erabiltzaile nagusiak; horren erakusle da joan-etorri gehiago egiten dituztela, oinez zein garraio publikoa baliatuz. Askotariko lanak egin behar dituzte egunero, toki ezberdinetan, eta antolamendu poligonal bati jarraituta; horren eraginez, ibilbide ugari egin behar dituzte emakume askok, zailtasun gehiago edo gutxiagorekin, hiria nola antolatuta dagoen arabera. Izan ere, emakumeek hiriaz baliatzeko duten modua eta beren denbora erabiltzeko duten modua ez datoz bat hiri-ingurunearen eraikuntzari buruzko erabakiak hartzean oinarritzat hartu diren mugimenduekin, ordutegiekin eta arazoiekin.

Familien zaintzak zenbait erregularitasun edo zeregin-kate dakartza berekin, eta horiek hiri-espazioaren, hiriartekoaren edo landa-eremuaren erabileran gertatzen dira eguneko, asteko edo hilabeteko denbora-zikloetan edo bizitza osoan. Emakumeek lan asko egin behar dituzte egunero etxetik kanpo; izan ere, toki nahiz hiri-ekipamendu ugariara joan behar dute, hain zuzen ere, erreproduzioarekin lotutako jarduerak garatzen diren lekuetara. Lurralde- eta hiri-plangintzak balioa kendu die lan horiei, ez baititu «lantzat» jotzen, bai eta emakumeek eskolara, osasun-zentzora nahiz dendetara egiten dituzten «lan-bidaiei» ere. Gehienbat emakumeek erabiltzen badituzte ere, garraio publikoen sistema asko lanean ordutegi normalizatuenak dituzten gizonak lantokitik etxerako (eta alderantziz) joan-etorri pendularrean oinarrituta daude, familia- eta lan-erantzukizunak gain hartzeari lotutako beste joan-etorri «poligonalago» batzuei erantzun beharrean.

Emakume askok mugikortasun-eredu bereizgarri hori izan arren, hiri-bilbearen zati batzuk espazioan bereizitako eremu monofuntzionaletan egituratuta daude; ondorioz, pertsona askok –gehienak emakumeak– beren eguneroko bizitzan moldatu ahal izateko, joan-etorri jakin batzuk egiten dituzte eta funtzio bakoitzari denbora jakin bat esleitzen diote, ez baitute erabilerak, denborak eta distantziak uztartzen dituen hiri-bilberik. Hori bereziki problematikoa da hiri txikietan edo landaguneetan, baldin eta urteetan zehar biztanleria galdu badute, eta, horren ondorioz, beren ekipamendu-hornidura murriztu bada eta auzoak edo hiriguneak funtzio bakarreko edo ia erabilerarik eta jarduerarik gabeko gunek bihurtu badira, edo kostaldeko edo mendi aldeko hirigune turistikoagoetan, non hirigintzak aldi baterako turismo-erabilerei soilik erantzun dien eta alde batera utzi dituen bertan bizi diren pertsonen eguneroko bizitzari aurre egiteko behar dituzten zuzkidura-premiak.

Hiri-kudeaketa berdintasunezko tresna bilakatu dadin, «denboraren kudeaketa» oinarri hartuta antolatu beharko da hiria, non auzoek lehentasuna duten. Bazter utzi beharko da, beraz, erabilera espezializatuak dituzten eta denbora eta espazioa gero eta gehiago banatzean oinarritutako hiriak eraikitze joera.

Mugikortasun-ereduak gizonak eta emakumeak estatistikoki hartzen dituzten genero-rolen arabera aldatzen dira. Horrez gain, gogoan izan behar da emakumeak direla garraio publikoa gehien erabiltzen dutenak, zio gehiagorengatik lekualdatzen direla, joan-etorri gehiago lotzen dituztela eta aukera gutxiago dituztela ibilgailu pribatua izateko. Horregatik, hiriko mugikortasun-planetan genero-ikuspegia txertatzeko, lehenbiziko urratsa da errealitate horretaz jabetzea eta, horrenbestez, garraioen eskaintza emakumeen premiei jarraikiz antolatzea, askotariko arloetan, besteak beste: garraio publikoaren erabilerak, maiztasuna eta geltokiak zehaztea, irisgarritasuna (haur-kotxeak, gorpil-aulkiak eta abar eramatea) eta intermodalitatea. Emakumeen mugimenduei eman beharko litzaieke lehentasuna, eta, oro har, garraioari loturiko ekipamenduek erosoagoak eta hobeto banatuta egon beharko lukete.

Gai horiekin batera, nabarmentzekoa da, halaber, hiri-eremuetan esku hartzeko funtsezkotzat jotzen den gai bat, finkatutako hiria genero-ikuspegitik eraldatzeko prozesuen esparruan: **hautemandako segurtasunik eza**. Izan ere, funtsezko alderdi horrek nabarmen baldintzatzen du emakumeak hirian nola mugitzen diren, hirian mugitzeko eskubidea nola baliatzen duten, hiri-espazioa nola okupatzen duten edo garraio publikoan nola mugitzen diren.

Ingurune seguruak sortuz gero, emakumeak autonomoagoak izango lirateke hirietan, eta beldurrik gabe mugituko lirateke. Segurtasunari buruz ari garenean, espazio publikoan egindako balizko krimen edo jazarpenei eta haien salaketei buruzko estatistikak bezain garrantzitsua da emakumeek gizonen aldean duten segurtasun-gabeziaren pertzepzioa; izan ere, pertzepzio horrek negatiboki eragiten die emakumeei hiri-inguruneak eskaintzen dizkien ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko orduan. Segurtasun-gabezia horren zati batek generoen eraikuntza sozialean du jatorria; izan ere, eraikuntza horren arabera sexu desberdinei lan, gaitasun edo askatasun-eredu espezifikoak esleitzen zaizkie. Emakumeek sentitzen duten beldur horren ondorioz, haietako askok ordu jakin batzuetan leku jakin batzuk saihesten dituzte; ondorioz, murriztu egiten da haien askatasuna, bai eta garapen pertsonalerako, lanerako edo zerbitzuetarako sarbidea izateko eta aisialdirako dituzten aukerak ere; laburbilduz, emakumeek jasaten duten espazio- eta denbora-bazterketa horrek gaitasungabetu egiten ditu hiriko eskubide osoko herritar gisa.

Egungo plangintzak ez du laguntzen eremu seguruak eraikitzen. Guneak funtzioen arabera bereiztearen ondorioz, eremu jakin batzuk ordu jakin batzuetan baino ez dira erabiltzen. Horri segurtasunik eza sentiarazten duten faktore fisiko jakin batzuk gehitu behar zaizkio (gune hondatuak, graffitiak, iluntasuna, kalezuloak...). Horiek dira, besteak beste, leku jakin batzuk **zaintza pasiboa** (hain zuzen ere, erabilera anitz dituzten eta oinez mugitzea ahalbidetzen duten espazioek berez dutena) galduz joatea eragin duten faktoreak, eta horregatik emakumeak ez dira seguru sentitzen bertan. Auzoak eskaintzen duen gune publiko hurbila, erabilera eta jardueren zein bizitegi-tipologiaren heterogeneotasunean oinarritua, funtsezko elementua da hirietan segurtasun-sentsazioa bermatzeko.

Hirietako segurtasunak gizarte osoarengan du eragina; hala bada, ingurune lagunkoi eta seguruagoak sustatzeak, emakumeei ez ezik, umeei eta adineko herritarrei ere egiten die mesede. Izan ere, haiek dira oinez gehien mugitzen direnak eta eremu publikoa gehien erabiltzen dutenak, bai jolas-jardueretan bai harreman sozialetan.

Hiri debekatuaren mapa³⁹ proiektua EAEko zenbait udalerritan dago ezarrita (besteak beste, Basaurin, Hernanin eta Ermuan); tresna esanguratsua da arlo horretan, bide ematen baitie profesionaleri eta herritarrei segurtasuna batera aztertzeko. Kaltetun nagusiak direnez gero, emakumeek ere parte hartzen dute proiektuan.

Emakume askok **etxean** igarotzen dute denbora gehiena; denbora horren zati handi batean, gainera, lanean ari dira emakumeok, etxeko lanak egiten, alegia. Jarduerok ikusgai ez egotea da, hain zuzen ere, lan horiek atsegin bihurtzen dituzten eremuak eraikitzeko lehen arazoa. Horregatik, gizarteak lan erreproduktiboak aintzatestea lagungarria izango da lanok egiten dituzten pertsonak ere ikusgai jartzeko. Etxebizitzaren eraldaketa, etxebizitza atsegin egitera bideratua⁴⁰, aukera ona izan daiteke genero-ikuspegia integratzeko eta bizikaltatea hobetzeko etxebizitzaren barruan zaintzaren zati handi bat beren gain hartzen jarraitzen duten pertsona guztientzat, ez soilik emakumeentzat.

Familia nuklearraren ereduak (bikotea eta seme-alabak) nagusi izaten jarraitzen badu ere, asko aldatu dira azken urteotan familia- eta bizikidetzak-moldeak. Etxebizitzaren merkatua, ordea, ez da eritmo berean aldatu, zurrun mantendu baita aldaketa sozial horien aurrean. Etxebizitza gehienak familia-eredu tradizionalen oinarrituta eraikitzen dira, hots, seme-alabak dituzten bikotea, bi soldatarekin eta elkarrekin erosteko proiektu komunarekin. Hala, bazter uzten dira beste mota bateko harreman pertsonalak edota familiak, eta ziurtzat jotzen da familia-nukleo guztiek premia berberak dituztela.

Askotariko etxebizitzek aniztasun soziala sustatzen dute auzoetan; horrek, bertako kohesio soziala bultzatu ez ezik, uztartzeko tresna gisa ere balio du, etxebizitza- eta bizitza-aukera anitz ematen baitizkie pertsoneri, beste era batean izango ez lituzketenak (adibidez, bizitokia aldatu ahal izango lukete auzoa edo hiria aldatu behar izanik gabe).

lido horretan, etxebizitza-politiken kudeaketaren alorrean, funtsezkoa da kontuan hartzea egoera berezien nahiz larrialdien ondore diren premia jakin batzuk. Erabilera zehatz batzuetarako etxebizitzak gordetzea (etxea izateko aukerarik ez duten ama ezkongabeak) edo larrialdietan (indarkeriaren biktima diren emakumeak) etxebizitzaren parkeko etxebizitza bat emateak arindu egin dezake

³⁹ Parte hartzeko tailerren bitartez, segurtasunik ezaren sentipena eta emakumeen eguneroko bizitza baldintzatzen duten beste alderdi batzuk jorratzen dituzten proiektuak. Mapa horietan eremu gatazkatsuak identifikatzen dira, «puntu beltzak» direlakoak, eta emakumeak ahalduntzeko lana garatzen da; izan ere, ingurune segurua izateko eskubidea aldarrikatzen dute emakumeek. Aldi berean, udalako teknikari eta politikak sentikortzeko lana egiten da, baita baterako analisisan sorburua duten hobekuntza-proposamenak ere.

⁴⁰Etxebizitza lagunkoia pertsona guztiek modu errazean erabili ahal izateko pentsatutako etxebizitza da, bizitzan zehar izan ditzakegun askotariko premiei erantzuna emango diena. Etxe horretan, gure gaitasunak aldatzen badira edo murrizten badira, aldaketak erraz eta kostu handirik gabe egin ahal izango dira.

kaltetuen autonomiarik eza, eta hori ezinbestekoa da pertsona horiek hirian gizarteratzeko.

Europako zenbait hiritako ekimen batzuek agerian utzi dute eraikin batzuk, edo erabiltzen ez diren edo gutxiegi erabiltzen diren eraikinen barruko espazio jakin batzuk, botere eraldatzaile handia dutela kokatuta dauden hiriguneen barruan, tokiko komunitateen zerbitzura jartzen direnean, bereziki komunitate horiek espazio horien erabilera eta, are gehiago, baterako kudeaketan inplikatzeko direnean; izan ere, eraikin horiei erabilera berriak ematen zaizkie eta erabiltzeko ideia berriak mahaigaineratzen dira, hiriarentzat oso aberasgarriak eta dinamizatzaileak direnak.

«Genero-ikuspegidun hiri-berroneratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bultzatu 2050 - Hiri-Agendaren esparruan»⁴¹ gidak nabarmentzen duen bezala, euskal hirietan dauden bizitegi-eraikin batzuk genero-ikuspegitik eraldatzeko edo birgaitzeko jarduketa eraginkor batzuk honako hauek izan daitezke: beheko solairuan dauden lokal hutsak haurtxoen orgatxoak, mugikortasun pertsonaleko ibilgailu txikiak edo mugikortasun urriko pertsonentzako ibilgailuak eta/edo bizikletak gordetzeko berrerabiltzea. Hala, kaletik sarbidea duten lokal horiek pertsonen sarrera- eta irteera-gune berri bihurtuko dira eta, horrela, «segurtasun pasiboko» gune bihurtuko. Era berean, lehendik dauden estalki batzuk urtaro-eremu bihurtzeko aukera planteatzen da, auzo-komunitateari eraikin berean bizi diren pertsonen arteko kontaktua ahalbidetzen duen topagune bat emateko. Horrek komunitate-sentimendu handiagoa sortzen lagun dezake, eta, horrenbestez, bizilagunen artean zaintza-lanetarako laguntza-sare bat sortzea ekar dezake.

Genero-rolak pixkanaka lausotzen ari dira, eta tradizioz emakumeei esleitutako zereginak gizonen ere beren gain hartzen dituzte. Hala ere, hiri-plangintzaren arloko **erabaki nagusiak** genero-rolen banaketari jarraikiz hartzen dira oraindik. Emakumeek erabakiak hartzeko prozesuetan izaten duten **parte-hartzea** ez da behar bezalakoa, egoera aldatzeko interesik ez baitago, edo inertzia hutsagatik. Emakumeek erantzukizuneko postu nagusiak betetzea aurrerapauso garrantzitsua da, ez ordea nahikoa, emakumeen ikuspuntua erabakiak hartzeko prozesuetan txertatzeko, orain arte oso emakume gutxi parte hartzen baitzuten prozesuetan; hala, hobeto babestuko dira beren beharrezkoak plangintzako prozesuetan.

Hirigintza inklusiboa sortzeko ez dira nahikoak garraio publikoaren sistemak eta sareak hobeto planifikatzea, segurtasunaren aldetik espazioak hobeto diseinatzea edo erabilerei dagokienez hiri heterogeneoak eraikitzea. Lurraldean antolatzekeo dimentsio fisiko hori ez da nahikoa herritar guztiak elkartzeko gai den hirigintza erdiesteko. Aitzitik, hiri finkatuak planifikatzeko, nahitaezkoa da esku hartzeko tresnak eta lan egiteko moldeak berriz planteatzea. Horretarako, genero-ikuspegi intersektionala aplikatu behar da, genero-datuak eta datuok beste aldagai batzuekin duten elkarreragina kontuan hartzeko gai dena. Ikuspegi intersektional hori lagungarria izango da emakume guztiak berdintzat ez jotzeko, eta, era berean, haien arazo eta behar ugari erantzuteko. Beraz, kontuan hartu behar dira elkarrekin lotuta dauden balizko kalteberatasun-ardatzak (adina, erosteko ahalmena, hezkuntza-maila, etnia, etab.); horrela, emakumeak talde sozial homogeneo bat ez direla ulertuko da. Hiriaren gaineko jarduera orok aintzat hartu behar du premisa hori.

⁴¹ Bultzatu 2050 - Euskadiko Hiri Agenda

Hala bada, emakumeek kontsulta publikoko prozesuetan **parte hartzea** ezinbesteko tresna da hirigune habitatueta esku-hartzeak arrakasta izan dezan; partaidetza-mekanismoen bidez, emakumeek hiri-inguruarekin egunero duten esperientziaren berri eman dezakete, bai eta beren premien eta mugen berri ere, hirian aukera-berdintasunaren aldeko ekintzak sustatze aldera, batez ere auzoetan, horietan garatzen baita gehien emakumeen eguneroko bizitza. Horregatik, bereziki interesgarria da emakumeen presentzia auzo-erakundeen edo emakume-elkarteen bidez bideratzea. Interesgarria da, halaber, erakunde formaletako kide izan gabe ere aztertu beharreko ingurunean egunero bizitzen dituzten esperientziak transmititzeko gai diren beste emakume batzuen presentzia.

Herritarrek parte hartzeko prozesuak, halere, plataforma digitalen bidez antolatzen dira askotan. Arrakala digitala dela eta, emakumeak gizonak baino gutxiago sartzen dira plataforma horietara. Horregatik, ezinbestekoa da emakumeek prozesu horietan modu presentzialagoan parte har dezaten sustatzea, eta parte-hartze hori, besteak beste, elkarteen bitartez, gauzatu daiteke.

Azkenik, hiri integratzaile eta inklusiboagoa lortzeko, genero-desparekotasunaren azpian dagoen arazoa ikusgai jartzeko eta horri hirigintzatik zein lurralde-plangintzatik heltzeko beharra azpimarratzeko **informazio-planak edota -ekintzak** egin behar dira, teknikari guztientzat zuzenduta.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG) «zeharkako gaiak» deritzon atalean «genero-ikuspegia» eranstea esperientzia aitzindaria izan da Euskadin. Aipatu atala 2015ean indartu eta aberastu zen, hain zuzen Eusko Jaurlaritzak **Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen (LAG)** gaineko proposamen eta ekintza jakin batzuk idatzi zitzala agindu zionean Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Generoaren UNESCO Katedraren zuzendariari, genero-ikuspegiari buruzko oinarritzko dokumentuaren ekintza-eremua garatze aldera.

2.5. BERDINTASUN ARLOKO AGINDU ESPEZIFIKOAK

Honako taula honetan jaso dira lurralde-plangintzari eta hirigintzari lotutako berdintasun-alorreko lege-agindu nagusiak:

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ ARAUAK
<p>Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta kide anitzeko organoetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte.</p>	<p>4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko: 23. art.</p>
<p>Euskal administrazio publikoek sustatu behar dute emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea profesionalen, enpresen, gizarte-ekonomiaren, sindikatuen, politikarien, kulturaren eta bestelako arloetako elkarte eta erakundeen zuzendaritza-organoetan, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikulua azken tartekian aipatutako faktoreak dituzten emakumeen egoera. Horretarako, beste jarduketak batzuen artean, dagozkien dirulaguntzak egokitu ditzakete, emakumeen ordezkariak txikiegia duten organoetan emakumeen presentzia handitzeko neurriak hartzearen arabera.</p>	<p>4/2005 Legea: 24.1 art.</p>
<p>Euskal botere publikoek behar diren baliabideak jarriko dituzte berma dadin genero-ikuspegia txertatzen dela lurralde-antolamenduaren, hirigintzaren, garraioaren eta etxebizitzaren arloko politikak, arauak, planak eta programak diseinatzean, betearaztean eta ebaluatzean; besteak beste, gai hauek hartuko dira kontuan:</p> <p>a) Emakumeen eta gizonen beharizan desberdinen ezagutza sustatzea mugikortasunari eta etxebizitza-, garraio- eta hirigintza-politikekin lotutako espazioak, azpiegiturak eta zerbitzuak erabiltzeari dagokionez, horretarako diagnostikoak, azterlanak eta sexuaren arabera bereizitako estatistika-datuak eta sektore horietako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko adierazle espezifikoak eskuragarritasuna areagotuz eta hobetuz.</p> <p>b) Emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitza bermatzeko gune seguruak sustatzea.</p> <p>c) Gizartearen aldetik kohesionatuta dauden eremuak eta lurraldeak sustatzea, emakumeen eta gizonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko eta zerbitzuak eta azpiegiturak berdintasun-baldintzetan eskuratzeko, bereziki kontuan hartuta 3.1 artikuluko azken tartekian aipatutako faktoreak biltzen dituzten emakumeen egoera.</p> <p>d) Erraztea etxeko lanak eta pertsonak zaintzeko lanak egitea eta erantzukidetasunez bateratzea bizitza pertsonala, familia eta lana, eta, oro har, kontuan hartzea ekoizpen- eta ugalketa-arloan sortutako beharrak, bizitzaren iraunkortasuna errazteko helburuz.</p> <p>e) Sektoreko profesionalen berdintasun-arloko prestakuntza sustatzea.</p>	<p>4/2005 Legea: 46.1 art.</p>

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ ARAUAK
f) Aipatutako politika eta programak diseinatzerakoan eta gauzatzerakoan gardentasuna eta emakumeen ikusgaitasun eta parte-hartze handiagoo sustatzea, bereziki 3.1 artikulua azken tartekian aipatutako faktoreak biltzen dituzten emakumeena.	
Euskal administrazio publikoek, funts publikoekin finantzaturako etxebizitzetarako sarbidean , bermatu behar dute lehentasuna emango zaiela emakumeen kontrako edonolako indarkeria matxista pairatzen duten biktimei, baldin eta indarkeriaren ondorioz prekaritate ekonomikoan badaude edo etxebizitza bat izatea beharrezkoa badute leheneratzeko.	4/2005 Legea: 58.1 art.
Emakumeek eta gizonak denborak bidezko eran banatu ditzaten , tokiko korporazioek hiriko denbora antolatzeko udal-planak ezarri ahal izango dituzte. Autonomia-erkidegoen eskumenak gorabehera, Estatuak laguntza tekniko eman ahal izango du plan horiek gauzatzeko.	3/2007 LO: 22. art.
Hirigintzako eta lurralde-antolaketako politikak kontuan hartuko dituzte gizarte-talde desberdinen eta familia-egitura desberdinen beharrizanak , eta ahalbidetuko dute berdintasun-baldintzetan jotzea hirigintzako zerbitzu eta azpiegiturretara.	3/2007 LO: 31.1 art.
Gobernuak, bere eskumenen alorrean betiere, beharrizan-egoeran dauden, bazterketa-ariskuan dauden eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeek etxebizitza eskuratu ahal izan dezaten sustatuko du, batez ere adinez txikiko seme-alabak dituztenean kargura.	3/2007 LO: 31.2 art.
Administrazio publikoek, hiria diseinatzean , hirigintzako politiketan eta hirigintza-plangintza zehaztu nahiz betetzean, kontuan hartuko dute genero-ikuspegia; horretarako, bereziki, herritarren partaidetza eta gardentasuna suspertu eta ahalbidetzeko mekanismoak eta tresnak erabiliko dituzte.	3/2007 LO: 31.3 art.
<p>BE.2.4.1.- Sektore pribatuan kontziliazio erantzukidea bultzatzea; horretarako, arau-esparrua Europako 2019/1158 Zuzentaraura (gurasoen eta zaintzaileen bizitza profesionala eta familia-bizitza uztartzeari buruzkoa) egokitu behar da, eta arreta berezia jarri behar zaio telelanari eta denboraren malgutasunari.</p> <p>BE.4.1.2.- Ekonomia- eta lan-jarduera neurtzen duten adierazleak hobetzea, produkzioaren eta erreproduzioaren (etxeko eta zaintzako lanak) edo zor ekologikoaren eta zaintza-zorren kostu fisiko eta sozial errealek adieraz ditzaten eta emakumeen eta gizonen artean erantzukizunak nola banatzen diren adieraz dezaten.</p> <p>BE.4.3.1.- Lurralde- eta hirigintza-plangintzak, natura-baliabideen kudeaketak, hirigintza-plangintzak, etxebizitzetarako sarbideek eta etxebizitzaren diseinuen (eraikinen eta etxebizitzaren birgaitze integrala barne), espazio eta ekipamendu publikoen nahikotasunak eta horien irisgarritasunak, eta emakumeen eta gizonen egungo mugikortasun-ereduak emakumeen eta gizonen bizitzan duten eragin diferentziala ezagutzea, eta jakitea zenbat errazten duten ongizate orokorra eta nola bermatzen duten pertsonen bizitzaren zaintza bizi-zikloan zehar.</p>	Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako Plan Estrategikoa (2022-2025), bizitzarako ekonomiarako lan-ildoak eta helburu espezifikoak

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK	ARTIKULUAK/ ARAUAK
<p>BE.4 .3.2.-Genero-ikuspegia txertatzen duten irizpideen identifikazio eta aplikazioa bultzatzea lurralde-antolamenduan, baliabide naturalen kudeaketan, hirigintza-plangintzan, eta etxebizitza, espazio publiko eta garraio jasangarrirako sarbide eta diseinuan (energia-efizientzia lortzeko, eraikinak eta etxebizitzak birgaitzea barne), kontziliazio erantzunkidea eta pertsona guztien autonomia errazteko.</p>	
<p>5. HE.- GFAko lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatzeko aurrerapausoak egiten jarraitzea.</p> <p>7. HE.- Emakumeen eta feminismoaren ekarpenak eta jakintzak aitortzea «Gipuzkoa eredu» garatzeko.</p> <p>9. HE.- Gipuzkoako emakumeen ahalduntze soziala eta politikoa indartzea</p> <p>10. HE.- Berdintasunaren aitortza soziala indartzea, giza garapen jasangarriaren zati den aldetik</p> <p>11. HE.- GFaren eta Gipuzkoako erakundeen eraldaketa-prozesuetan berdintasuna txerta dadin bultzatzea</p> <p>12. HE.- Gipuzkoako emakumeen autonomia ekonomikoa lortzen laguntzea, kalitatezko enplegua sustatuz</p> <p>13. HE.- GFaren konpromisoa emendatzea zaintzen horniduran eta kontziliazio erantzukidean</p>	<p>Gipuzkoako Foru Aldundiaren III. EGBPren helburu estrategikoak</p>
<p>7.1. Helburua- Zaintza-lanen ekonomia feminista aplikatzeko praktika definitzea Bizkaiko Lurralde Historikoan.</p> <p>8.1. Helburua-Norberaren eta besteren konturako enplegua lortzeko genero-arrakalak murriztea.</p> <p>8.2. Helburua-Ezagutza areagotzea eta, emakumeen eta gizonen arteko genero-arrakala murriztea landa-ingurunean, ordaindutako enpleguan, zaintza-lanetan eta emakumeen parte-hartze soziopolitikoan emandako denboretan.</p> <p>9.1. Helburua- Emakumeen beharrei eta eskaerei erantzuteko neurriak jasotzen dituzten Lurralde Plan Partzialen eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorren kopurua handitzea.</p> <p>9.2. Helburua- Bizkaiko lurralde historikoaren mugikortasun-sistemaren aukerak eta ezaugarriak emakumeen beharretara gehiago egokitzea.</p>	<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren VI. EGBPren helburuak</p>
<p>EA 1.5.- Kontuan hartzea landa-ingurunean bizi diren herritarren mugikortasun beharrezan, baliabide publikoak beharizan horretara egokitzearen eta identifikatutako hobetzeko arloak ezartzearen bideragarritasunaren genero analisia, etorkizuneko Eskualdeko Garraio Planaren esparruan.</p> <p>EA 1.6.-Arabako landa-inguruneako emakumeen autonomia handitzeko mugikortasun-proiektuei laguntzea.</p>	<p>Arabako Foru Aldundiaren IV. EGBP</p>

OHARRA: Atal honetan, hirigintza eta lurralde-garapenaren arloan eragina duten agindu espezifikoak aipatzen dira, zeharkako berdintasun-tresna juridikoei dagozkienak, eta ez eremuko arau espezifikoak.

3. LEGEDIA

EUSKAL AUTONOMIA-ERKIDEGOKOA
4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa
1/2022 LEGEA, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egitekoa –1/2022 Legea
EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana. -VII. EGBP 2018-2022.
Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Gipuzkoako III. Foru Plana (2020-2023)
Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Bizkaiko VI. Foru Plana (2021-2024)
Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Arabako IV. Foru Plana (2016-2020)
Bultzatu 2050 - Euskadiko Hiri Agenda
EAEko Lurraldearen Antolamenduaren Gidalerroak, 2019
Genero-ikuspegidun hiri-berroneratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bultzatu 2050 - Hiri Agendaren esparruan
Euskadi Basque Country 2030 Agenda
ESTATUKOA
3/2007 Legea, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen artean berdintasun eraginkorra lortzekoa
Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako III. Plan Estrategikoa, 2022-2025
Espainiako Hiri Agenda
EUROPAKOA ETA NAZIOARTEKOA
EUROPA 2020.Hazkunde zentzudun, iraunkor eta integratzailea lortzeko estrategia.Batzordearen komunikatua.Brusela, 3.3.2010 COM (2010) 2020 amaiera.
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso estrategikoa, 2016-2019
Hiri Agenda Berria (Habitat III).Quito, 2016ko urria
Garapen Jasangarriko Agenda.Garapen Jasangarriko Helburuak
Hiri-garapen jasangarrirako estrategien eskuliburua.
Self-Assessment Tool for Sustainable Urban Development strategies.
Genero-berdintasunerako Estrategia, 2020-25
Leipzigeko Gutun Berria 2020: hirien botere eraldatzailea
Ljubljana agreement. Urban Agenda for the EU-The Next generation.

4. DATU-ITURRIAK

FUNTSEZKO ADIERAZLEAK ETA DATUAK	ITURRIA	ALDIA
<u>Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuen, adin-talde handien eta sexuaren arabera</u>	EUSTAT	Urtean behingoa
<u>Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, etxeko lan motaren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera. Euskal AE. 2018</u>	EUSTAT (Denbora-aurrekontuei buruzko inkesta-DAI)	2019
<u>Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, aisia aktibo motaren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018</u>	EUSTAT (DAI)	2019
<u>Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, etxeko lan motaren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera. Euskal AE. 2018</u>	EUSTAT (DAI)	2019
<u>Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, aisia aktibo motaren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018</u>	EUSTAT (DAI)	2019
<u>Euskal AEn 16 urte eta gehiagoko biztanleria okupatua hiruhilekoaren arabera lurralde historikoari eta sexuari jarraiki (milaka). I/2022</u>	EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta)	Urtean behingoa
<u>EAEko batez besteko errenta pertsonala errenta motari erreparatuta, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (eurotan). 2019</u>	EUSTAT (Pertsonen eta Familien Errentaren Estatistika)	2021
<u>Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, etxeko pertsonentzako zaintza motaren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018</u>	EUSTAT (DAI)	2019
<u>Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, etxeko lan motaren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera. Euskal AE. 2018</u>	EUSTAT (DAI)	2019
<u>Euskal AEko unibertsitateetan ikasketak amaitutako ikasleak, zentroaren titulartasunaren eta ikasketa-adarraren arabera sailkatuta, eta ikasketa-mailaren eta sexuaren arabera berezita. 2019/2020</u>	EUSTAT (Unibertsitate Estatistika)	2021
<u>Euskal AEn Lan Heziketan matrikulatutako ikasleak, gradu eta familia profesionalaren arabera, lurralde historiko eta sexuari jarraiki. 2019-20</u>	EUSTAT (Eskola Jarduerari buruzko Estatistika)	2021
<u>EAEko unibertsitateetan, graduiko ikasketetan matrikulatutako ikasleak, titulazioaren, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (2019-2020)</u>	EUSTAT (Unibertsitate Estatistika)	2021
<u>EAEEn administrazio elektronikoa azken hiru hilabeteetan erabili duten 16 eta 74 urte arteko biztanleak, sexuaren arabera (milaka eta %). 2003/2020</u>	EUSTAT (Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta-IGI)	2021
<u>Partaide bakoitzaren batez besteko denbora, aisia aktibo motaren, egun kopuruaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018</u>	EUSTAT (DAI)	2021
<u>Euskal AEko nekazaritzako ustategiak lurralde historiko eta eskualdearen arabera, ustategia zuzentzen duen pertsonaren prestakuntza eta sexuari jarraiki (2020)</u>	EUSTAT (Zerbitzuen Estatistika)	2022
<u>Internet erabiltzen duen EAEko 15 urtetik gorako biztanleria, sexuaren, adinaren, amaitutako ikasketa-mailaren eta jarduerarekiko loturaren arabera, lurralde historikoari jarraiki (%) 2021</u>	EUSTAT (IGI)	2021
<u>Oinarritzko adierazle demografikoak familia-etxe edo familia motaren arabera (%). 2019</u>	EUSTAT (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila)	2019

5. ERREFERENTZIA-AGIRIAK

5.1 AZTERLANAK ETA TXOSTENAK

- Fuenlabradako udala (2007). La perspectiva de género aplicada a las viviendas de nueva construcción. Berdintasun eta Enplegu Saila. Abendua, 2007.
- Irungo Udala (2011). Irungo Hiri Debekatuaren mapa. Gizarte Ongizateko Arloa.
- Gasteizko Udala (2019). Vitoria-Gasteizko mugikortasunari buruzko inkesta. Emaiza nagusien analisia. Ikertalde, Vitoria-Gasteizko Udala, 2019.
- Colectiu punt 6 (2011). Construyendo entornos seguros desde la perspectiva de género. Programa Ciutats i Persones. Institut de Ciències Polítiques i Socials.
- Colectiu punt 6 (2017). Entornos Habitables. Auditoría de seguridad urbana con perspectiva de género en la vivienda y el entorno. Col lectiu punt 6.
- Colectiu punt 6. Espacios para la vida cotidiana. Auditoría de calidad urbana con perspectiva de género. Col lectiu punt 6.
- Etxebizitza, Obra Publiko eta Lurralde Egituratzeko Kontseilaritza (2017). Género y política urbana. Arquitectura y urbanismo desde la perspectiva de género.
- Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Saila (2017). 2016ko Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlana.
- Deusto Gizarte Berrikuntza (2016). Bilboko auzoen IV. hiri-behatokia. Análisis, generoaren ikuspuntutik.
- Emakunde (2012). Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa hiri-segurtasunean.
- Emakunde (2016). EAEko bizitegi-bazterketa larria genero-ikuspegitik.
- Emakunde (2019). Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak. EAE. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, 2019
- Euskotren (2019). Urteko memoria 2019.
- EUSTAT (2021) Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak 2021.
- EUSTAT. Emakumeak eta gizonak Euskal AEn. 2022: Erantzunkidetasuna eta kontziliazioa.
- Generalitat Valenciana (2017). Género y política urbana. Arquitectura y urbanismo desde la perspectiva de género.
- Eusko Jaurlaritza (2010). Hiri-analisirako manuala. Generoa eta eguneroko bizitza. Generoaren eta herritarren eguneroko bizimoduaren ikuspegitik hirigintzaren analisi-mapak egiteko metodologia-eskuliburua. Hiri debekatuaren mapak EAEn. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.
- Eusko Jaurlaritza (2012). Hirigintza barnerratzailerak. Kaleek badute generoa. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

- Eusko Jaurlaritza (2020). Bultzatu 2050 - Euskadiko Hiri Agenda.Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2020). Genero-ikuspegidun hiri-berroneratzea Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri Agendaren esparruan. Bultzatu 2050.Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila.Eusko Jaurlaritza.
- Ikerfel (Merkatuko Ikerketa eta Marketin Estrategikoko Institutua) (2017). Bilbo metropolitarrako hirigintzan genero-ikuspegia integratzea. Bizkaiko Foru Aldundiak eskatuta, 2017.
- Andaluziako Emakumearen Institutua. Urbanismo con perspectiva de género. Berdintasunerako eta Gizarte Ongizatearen Kontseilaritza. Ekonomia eta Ogasun Kontseilaritza. Andaluziako Junta.
- Lemos, LM eta Lovecchio, SN (2021): Manual de diseño de espacios públicos con perspectiva de género y diversidad.Guía de recomendaciones teórico-prácticas para procesos de diseño e intervención en espacios públicos.
- Lurraldebus (2021). Lurraldebusen 2020. urteko Txostena. Lurraldebus.
- M. Román, I. Velázquez (2008). Guía de urbanismo con perspectiva de género. Román, Marta eta Velázquez, Isabela. 2008
- Berdintasun Ministerioa(2009): Manual práctico para una señalización urbana igualitaria. Espainiako probintzien eta udalerrien federazioa. Emakumearen Institutua.
- Nazio Batuen Erakundea (2016). Hiri Agenda Berria (HABITAT III).Etxebizitzari eta hiri-garapen jasankorrari buruzko Nazio Batuen Biltzarra.
- Plan Internacional (2021). Safer Cities for Girls: Un análisis del acoso callejero en las ciudades de Barcelona, Madrid y Sevilla.
- Sánchez de Madariaga, Inés. (2016). Genero-ikuspegia Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan.Ekintza-proposamenak. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Genero Politiken UNESCO Katedra.

5.2 ESKULIBURUAK ETA GIDAK

- Euskadiko 2020ko Agenda Digitala
- Etxebizitza lagunkoierako gida.Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila.Eusko Jaurlaritza

5.3 WEB-BALIABIDEAK

- Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT)
- Un callejero femenino para Vitoria
- Bilbok «KALETARRAK» proiektua hartuko du #BILBAOAURRERA planaren barruan, Uriaren historia kontatzeko bere kaleei izena ematen dieten emakumeen bitartez